

**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA  
ZUZENDARITZA ETA ZUZENBIDEKO GRADU BIKOITZA**

**2018/2019 ikasturtea**

**ZAINTZAREN EKONOMIAREN  
AZTERKETA: NAZIOARTEKO  
TESTUINGURUTIK EAE-RA**

**Egilea: Mainer Castellano Etxeberria**

**Zuzendaria: Mertxe Larrañaga Sarriegi**



Bilbon, 2019ko otsailaren 18an

## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	3
2. ZAINZAREN EKONOMIA.....	5
3. ZAINZAREN EKONOMIA NAZIOARTEAN .....	11
3.1 ORDAINDU GABEKO ZAINZA LANAK ETA GENERO DESBERDINTASUNAK LANEAN.....	12
3.2 ZAINZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEAK ETA ZAINZAREKIN LOTURIKO ENPLEGUA.....	16
4. EAE-KO ZAINZAREN EKONOMIAREN HURBILKETA, DENBORAREN ANALISITIK ABIATUTA .....	19
4.1 DENBORA SOZIALA ETA GENERO-IKUSPEGIA .....	20
4.2 ZAINZA.....	25
4.3 ETXEKO LANAK .....	27
4.4 EMAKUME ETA GIZONEN LAN EKARPENA, BIZITZAREN SOSTENGU .....	29
5. ERANTZUKIDETASUNAREN BILA: HAURRAREN ZAINZARA BIDERATUTAKO BAIMENAK .....	32
6. ONDORIOAK.....	38
7. BIBLIOGRAFIA.....	41

## 1. SARRERA

Lan honetan emakume eta gizonen lanean igarotako denboraren erabilera aztertuko dut, baina batez ere, zaintza eta etxeko lanetan zentratuko naiz, zehazki, ordaindu gabe egiten diren zaintza eta etxeko lanei emango diodalarik garrantzia.

Oraindik sexuan oinarritutako lanaren zatiketa dago eta horri aurre egiteko funtsezkoa da errealitatea aurkeztea: lehenengo eta behin, emakume askok ea berdinak garen galdetzen diote beren buruari, izan ere, nola ulertu daiteke oraindik emakume eta gizonen artean soldata desberdintasunak jarraitzea, menpekotasun ekonomikoa eraginez eta emakumeen pobrezia eta prekaritatea sortuz?; nola da posible emakumeak gizonen baino formakuntza gehiago izan, enpleguan haien antzera lan egin eta etxean askoz ere gehiago eta hala eta guztiz, gizonen baino gutxiago irabaztea? Beste aldetik berriz, indarkeria matxistaren kasua aurkitzen dugu. Nola da posible, ekonomikoki menpekoak eta indarkeria matxistaren biktimak izatearen kasuan, hauek egoera horretatik alde egiteko aukerarik ez dutenaren ideia ezkutuan mantendu izana? “Genero Indarkeriaren aurkako Estatuaren Akordioa”-k<sup>1</sup> ez du aitortzen oinarritzkoa den premisa bat: bitarteko ekonomikorik gabe, biktimak bere biziari buruz ezin duela erabaki, zehazki. Horrez gain, nola lortuko da soldadari dagokionean berdintasuna, benetan emakumei familian zaintza beharren bat sortzen denean beraien soldadari uko egitea eskaintzen bazaie? eta azkenik, nola da posible esatea gizonen emakumeen pare zaindu behar dutela, enplegu/zaintzaren sistema gizonak familiarengandik urrun eta 24 ordutan enpresentzat disponible egoteko antolatuta badago (Pazos, 2018). Esan behar da, arau eta erregelek funtsezko eginkizuna dutela Estatuan, merkatuan eta familian ezartzen diren harremanetan, eta harreman horiek neurri handi batean, genero harremanetan oinarritzen direla (Espino, 2010:4).

Hori dela eta, lan honen helburua, Euskal Autonomia Erkidegoan zaintza ekonomiaren azterketa burutzea da. Azterketa horretarako, batez ere, denbora erabiliko dudalarik oinarritzat. EAEn Denbora Aurrekontuen Inkestatik ateratako datuak ditugularik. Hauek gainera, bilakaera aztertzea ere ahalbidetzen dute. Denbora Aurrekontuen Inkestak asko lagundu du sexuaren araberako lan banaketa desberdinak eta ezkutuko lanak ikustarazten, lanaren eremuko jardueretan emakume eta gizonen denboraren erabilera azaleratuz.

Lanaren banaketan gizon eta emakumeen artean ematen diren desberdintasunekin amaitzea funtsezkoa da eta horretarako, emakumeek ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanetan igarotzen duten denbora ikustaraztea, errekonozitzea eta birbanatzea beharrezkoa da. Izan ere, lan-merkatuan emakumeen parte-hartzean oztoporik nagusia ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanak dira. Horren ondorioz, emakume eta gizonen ahalmenean genero desberdintasunak sortzen direlarik. Aldiz, zaintza eta etxeko lanak emakume eta gizonen artean berdintasunez banatzea, ordaindutako lanean emakumeen parte-hartze maila altuagoarekin lotzen da eta horrekin batera, seguroaski lan esparruan berdintasun handiagoarekin ere.

---

<sup>1</sup> Hemen ikus daiteke: <https://www.boe.es/boe/dias/2017/10/07/pdfs/BOE-A-2017-11528.pdf>

Horregatik, zaintza eta etxeko lanetan emakume eta gizonen parte-hartze parekidea sustatzea beharrezkoa da, baina baita ere errokonozitzea. Izan ere, nagusiki emakumeek burutzen dituzten lan hauek errekonozimendu sozial handiagoa izango balute, emakume eta gizonen artean lan hauen banaketa askoz ere orekatuagoa izango litzateke. Egungo sistema ekonomikoak, ordea, eginbehar hauek ezkutuan mantentzen ditu. Baina, horrek ez du esan nahi garrantzirik ez dutenik, lan hauek gabe egungo sistema ekonomikoa irauli egingo litzatekelarik. Horrez gain, lan hauek dira zehazki, bizitza sostengatzen dutenak eta nagusiki emakumeek burutzen dituzte, nahiz eta, emakumeek dohainik asumitu beharreko betebeharrak ez izan.

Lanaren edukiari dagokionean, honako egitura hau jarraituko dut: lehenengo lanaren marko teoriko moduan, ekonomia feministaz hitz egingo dut eta bereziki zaintzaren ekonomiaz. Hori dela eta, ekonomia feministaren aurkezpen batekin hasiko naiz, horrekin batera zenbait kontzeptu argituko ditudalarik, baina horrez gain, ordaindu gabe etxeetan emakumeek egiten duten zaintza eta etxeko lanen garrantzia eta beharra azalduko ditut. Lehenengo atal honetarako azterketa bibliografiko bat egin dut eta gai honetan adituak direnen liburu eta artikuluak erabili ditut.

Behin gaia ondo azalduta, nazioarteko egoera azalduko dut, mundu mailako ikuspegia emateko helburuz. Izan ere, lan hau EAEko azterketan zentratuko da, baina EAE aztertzeke garrantzitsua dela iruditzen zait Nazioarteko testuingurua ere aztertzea. Atal honetan Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2018an egindako txosten berria erabiliko dut nagusiki: “*zaintza lanak eta zaintza lanetan diharduten langileak, etorkizunean lan duina izateko*”. Bertan, etxeetan eta lan-merkatuetan zaintza eta etxeko lanekin lotuta dauden genero desberdintasun iraunkorrak aztertuko ditut eta horrez gain nazioarte mailako hainbat datu eta grafiko ere adieraziko ditut: lehenengo puntuan ordaindu gabeko zaintza lanak eta bertan ematen diren genero desberdintasunak azalduko ditut eta ondoren, zaintza arloan lan egiten duten langileak eta zaintzarekin loturiko enpleguaz jardungo dut. Aipatu azken puntu honetan, gainerako lan osoan ez bezala, zaintzaren arloan espazio publikoan, emandako lana azaleratuko dudala, zaintza-zerbitzuaren kontzeptupean.

Behin nazioarteko eremuaren berri emanda, Euskal gizartearen egoera aztertuko dut, laugarren atalean. Bertan, generoen artean ematen den denboraren erabilera azaleratuko dudalarik. Horretarako, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestatik (DAI) ateratako datuak plazaratuko dira, 1993tik 2013ra bitartekoak. Lehenengo, jarduera multzo nagusietan emakume eta gizonen 2013. urtean igarotzen duten denbora eta bi hamarkadetan emandako bilakaera azalduko dut horiei buruzko hausnarketa bat eginez. Baina batez ere, etxeetan egiten den zaintza zein etxeko lanetan eta ordaindutako lanetan zentratuko naiz. Atalarekin amaitzeko, berriz, bizitzaren sostenguaz hitz egingo dut, bertan bizitza sostengatzeko emakume eta gizonen ekarpen desberdinak azalduz, bai ordaindutakoak eta baita ordaindu gabekoak. Atal honetan, denborari buruzko datuak interpretatu eta hauen hausnarketa bat egiteko, Eustaten inkesten inguruan zenbait adituk argitaratutako aldizkari eta liburuak erabili ditut.

Amaitzeko berriz, haurren zaintzarako baimenen inguruan hitz egingo dut, izan ere, umeen zaintza funtsezko faktorea da emakumeek lan munduan duten posizioa ulertzeko. Lan munduan

emakumeek duten parte-hartze txikiagoa eta pairatzen dituzten desberdintasunak, etxeko lan eta zaintzaren erantzunkizunean banaketa ezberdina izatearen sintoma baita, horrek emakumeen aukerak mugatzen dituelarik. Oraindik, emakumeak dira haurrak zaintzearen zama pairatzen dutenak, horrek emakumeengan ondorio negatiboak eragiten dituztelarik, bai beraien diru sarreretan eta baita beraien iraganeko eskubide sozialen aitorpenean, amak animatzen baititu lana uztera, lanaldi partzialean lan egitera edo etxeko langile bat kontratatzerara. Horrez gain, genero desberdintasuna eta emakume eta gizonen arteko soldata arrakala handitzea eragiten du. Hori dela eta, azken atalean hurren zaintzari dagokionean emakumeek eta gizonak eskuragarri dituzten bitartekoak aztertuko dira. Lehenik, nazioartean zaintza lanen politikak enplegu-tasan duten garrantzia azalduko dut labur-labur, 2018. urteko LNE-ren txostena oinarri moduan hartuta eta ondoren, euskal gizartean zentratuko naiz. Zehazki euskal gizartean adin txikikoak zaindu eta atenditzeko jarritako bitartekoen artean baimenak, lan-eszedentziak eta lanaldi murrizketak direlarik funtsezkoenak. Horiei buruzko informazioa eskuratzeko María José Martinezek, *Ekonomiaz*, Ekonomiari buruzko euskal aldizkarian idatzitakoa hartu dut kontuan. Honekin loturik, EAEn emakume eta gizonak zaintzarako erabili dituzten eszedentzia kopuruari buruzko datuak azaleratuko ditut, zaintza mota eta sexuaren arabera bereiztuta, datu hauek Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren Estatistiketarik hartu ditudalarik.

Azken atal honekin amaitzeko, noski, aurten martxan jarri den Eusko Jaurlaritzaren familia-planari erreferentzia egingo diot, plan honek bikotea osatzen duten bi kideen guraso-baimena parekatzea ekarri baitu. Plan honen helburuetako bat, gurasoek denbora soziala modurik egokienean antola dadin sustatzea delarik eta ardura partekaturako antolamendu soziala erraztea. Plan honen inguruko informazioa, ordea, hainbat komunikabide eta “Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana”-tik atera dut. Lanari amaiera emate aldera, azken atalean, berriz, lanaren zenbait ondorio plazaratuko ditut.

## **2. ZAINZAREN EKONOMIA**

### EKONOMIA FEMINISTA: KONTZEPTUAK ARGITZEN

Ekonomia feminista gaur egun dugun “ekonomia ofizialaren” erantzun moduan agertu da. Ekonomia, merkatua baino gehiago dela adieraziz, bizi garen sistema heteropatriarkatua dela eta berdintasuna lortzeko dugun sistema ekonomikoa iraultzea behar-beharrezkoa dela azalduz (Armendáriz, 2018).

Ekonomia Feminista marko teoriko bat da, baina ekintza ere bada. Mundua ulertzen laguntzen digun teoria bat da; bizitza eta jasandako genero desberdintasunak sostengatzen dituen prozesu ekonomikoak ulertzeko kontzeptu, marko (esparru) analitiko eta metodologia propioak garatzen dituenak. Praktika ere bada ordea, irizpide feministei erantzuten dien premien asebetetze prozesuak eta lanak antolatze modu desberdin bat proposatzen baitu.

Ezin dugu pentsatu teoria eta ekintza aparte doazela: teoria ekonomiko feministak genero desberdintasuna elikatu eta horren gainean eraikitzen den sistema ekonomikoa behatzen du. Horren aurrean, ekonomia desberdin baterantz jotzeko proposamenak ematen ditu harreman

menperatzaileei aurre egin eta bizitza erdigunean jartzen duten ekoizteko, elkar trukatzeko, kontsumitzeko eta zaintzeko modu bat egon dadin (Pérez, 2018).

Ekonomia feministak premisa garbi bat dauka: errealitate ekonomikoa ez du gogoko eta ondorioz aldatzea nahi du. Hala ere, edozein gizarte aldatetaren proposamenak lehenik eta behin aldatu nahi duen errealitatearen funtzionamenduaren ezagutza izan behar du, garrantzitsuak diren arazoetan mekanismorik egokienak eta beharrezko itunak ikertzeko.

Azken hamarkadetan jarraitutako bidean zehar, ekonomia feminista ekonomia ofizial menperatzaileak definitutako zenbait kontzeptuen haustura planteatzeagatik ezaugarritu da. Haustura horrek ez dio kontzeptua aldatzeko grinari erantzuten, posizionamendu politiko bati baizik. Izan ere, erabiltzen diren zenbait kontzeptu eta definizioak ez dira neutralak, norabide androzentriko nabarmen bat agertarazten baitute. Horrela, besteak beste, lana, denbora, ekoizpena, zaintza, ongizatea, mendekotasuna eta erreproduzioaren terminoak berkontzeptualizatu eta eztabaidatu dira (Carrasco, 2017).

Lanari dagokionean, esaterako, ekonomialari askoren iritziz, ordaindutako lana merkatu-eremuko lana, enplegua, produktibotzat eta ekonomikotzat jotzen den lan bakarra da, enpleguaren sinonimo erabiltzearen ondorioz. Ordaindutako lana sistema kapitalistan funtsezkoa den lan-mota delarik. Aldiz, lanaren kontzeptua horrela defini daiteke: “gizakiaren jarduera, hainbat arlotan egiten dena, bereziki merkatu arloan (soldatapeko lana eta lan autonomoa) eta merkatukoa ez den arloan (Larrañaga, 2015:73).

Zaintzaren kasuan, berriz, aipatzekoa da zaintza lanak bere baitan bi jarduera mota barnebiltzen dituela; alde batetik zaintza zuzenak, pertsonalak eta harremanetan oinarritutakoak, adibidez, haurrari jaten ematea edo gaixo dagoen senidea zaintzea; eta bestetik zeharkako zaintza, esaterako, sukaldatzea eta garbitzea. Bestetik, argitzea komeni da, ordaindutako zaintza eta ordaindu gabekoaren kontzeptuak. Ordaindu gabeko zaintza lana, hitzak berak esaten duen moduan, zaintzaleak burutzen duen zerbitzu bat da, zerbitzu horren truke ordainsari ekonomikorik jaso gabe. Hala ere, ordaindu gabeko lana, lan moduan kontsideratzen da. Aldiz, ordaindutako zaintza, zaintza lanetan aritzen diren langileek burutzen dute ordainsari baten truke. Hauen barnean, zerbitzu pertsonaleko langile mota desberdin ugari barneratzen dira, erizainak, medikuak, zaintza pertsonaleko langileak, besteak beste (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:1). Zaintzari dagokionean, ondo legoke argitzea, nahiz eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE), etxeko lanak zaintza lan moduan kontsideratu, nik lanean zehar bereiztu egingo ditudala zaintza eta etxeko lanak. Izan ere, Eustaten Denboraren Aurrekontuen Inkestetan bereiztuta agertzen dira bi jarduera hauetan emakumeek eta gizonek igarotzen duten denbora eta inkesta hauen datuak azaltzeko egokiagoa da. Bestetik aipatu, lanean zehar, zaintza eta etxeko lanaren kontzeptua erabiltzean, etxean egiten den lanari egiten zaiola erreferentzia, hauek ordainduta edo ordaindu gabeak izan daitezkeelarik, nahiz eta gehienak ordaindu gabeak izan; aldiz, zaintza-zerbitzua erabiltzean, espazio publikoan egiten den lanari egiten zaio erreferentzia, hauek, gehienbat ordaindutako lanak direlarik, baina ordaindu gabekoak ere izan daitezke (ONG batean egiten denean). Aldiz, ordaindutako lana merkatu-eremuko lanari erreferentzia egiteko erabiltzen da.

Behin zenbait kontzeptu argituta, esan behar da ekonomia feministaren kezketako bat, emakumeek historian zehar ordaindu gabe egindako etxeko lanak eta zaintza lanak ikustaraztea izan dela. Hau da, ekonomia feministak etxeetan produzitzen ez denaren ideia nagusiarekin hautsi nahi du. Lan hauek, pertsonen bizi-kalitaterako funtsezkoak izateaz gain, sistemaren eta haren eragileen funtzionamendurako ere beharrezkoak dira. Gainera, ez dago zalantzarik enpresek lan hauekin onurak ateratzen dituztela, izan ere, zaintza horiek merkatuek beren gain hartu beharko balituzkete, enpresen emaitza ekonomikoak nabarmenki desberdinak izango liriateke. Gainera, etxeko produkzio hau ikusezin bihurtzean, merkatuko ekoizpenen eta merkatukoak ez direnen arteko loturak ezkutatu dira eta merkatuak autosufoziente moduan aurkeztea baimendu du, benetan ez direnean (Larrañaga, 2018).

Stiglitz, Sen eta Fitoussik 2009. urtean hazkunde ekonomikoaren eta gizarte aurrerapenaren neurketa hobetzeko ekimenari buruzko txostena landu zuten, ongizatearen neurketan erreferente bihurtuz eta honako hau onartzen du txostenak: *numerosos servicios que los hogares producen por sí mismos no se toman en cuenta en los indicadores oficiales de ingresos y de producción, y sin embargo constituyen un aspecto importante de la actividad económica* (Stiglitz, Sen eta Fitoussi, 2009 ).

## ZAINZA ETA ETXEKO LANAK ETA HAUEN GARRANTZIA

Zaintza eta etxeko lanaren barne, egunero burutzen diren ekintza asko barneratzen dira, harrikoa egin, garbigailua jarri, arropak zintzilikatu, haurrak eskolara eramane, jaso, merienda eman, amona ea ondo dagoen adi egon, medikuarekin zein egunetan duen kontsulta gogoratu, erosketetako lista egin, hilea amaitzeko zenbat diru geratzen den kalkulatu, eta abar. Hala ere jarduera guzti hauek ez dute errentarik sortzen (zentzu klasikoan) “ekonomia errealean”, baina errenta lortzeko funtsezkoak dira eta noski, ekintza guzti hauek lanak dira: egunerokotasunean ongizatea mantentzeko erreferentzia egiten dioten lanak, hain zuzen ere. Gainera, batez ere emakumeek burutzen dituzte (Legarreta eta Sagastizabal, 2018).


Zaintza eta etxeko lanak gizakiaren hainbat oinarrizko beharrezanean erantzuten die, jatea, txukun mantentzea, eremu garbi batean bizitzea, eta abar. Baina hauetatik normalean ez gara ohartzen, izan ere, estalita ditugun beharrak dira, jada naturalizatuta ditugularik. Etxe barruan konpontzen dira zerbait naturala izango balitz moduan, baina ez da. Perspektiba horretatik, uler dezakegu zaintza emakumeok seme-alaba, gizon eta pertsona helduei edo beren ohiko bizitza garatzeko zailtasunak dituztenei eskaintzen dieten plus afektibo bat dela, non, emakumeen energian desgaste nabarmena adierazten duen (Carrasco, 2017).

Gu, ahula eta hauskarra den psike eta gorputz batean jaio eta bizi gara, non, bizi-ziklo osoan zehar zaintza behar dugun: gorputzaren zaintza, osasunean, afektiboan, maitasunari dagokionean, psikologikoa. Beraz, zaintza ukatzea, biziari uko egitea da (Carrasco, 2017).

Zaintza eta etxeko lanak bizitzaren eta sistema ekonomikoaren oinarri moduan duen garrantziak, lan hau gizarte erreprodukzioaren erdigunean jartzea onartzen du, emakumeak gizarte egitura eta egitura ekonomiko osoa sostengatzen duelarik. Ondorioz, bizitza beraren

sostenguak dira. Beraz, esan behar da, emakumeek betidanik egindako lan eta zaintza kantitate handien ondorioz soilik jarraitu dezakeela sistema ekonomiko eta sozialak funtzionatzen. Hori dela eta, lan bezala errekonozituta egon behar dira (Carrasco, 2017:65). Esandakoa argi ikusten da hurrengo grafikoan:

## 1. GRAFIKOA: LANAREN ZIRKUITOA



Iturria: Carrasco, 2011.

Lehenengo grafikoak<sup>2</sup> argi erakusten du lanaren eta produkzioaren zirkuitoari buruz ekonomia feministak duen ikuspegia. Irudian ikusten den lerro horizontalak, kapitalista den merkatuko produkzioa eta giza garapenaren espazioak banatzen ditu (nahiz eta horren zorrotza den banaketa ez izan oso erreala). Alde batetik, bi espazioetako lan desberdinak oso lotuta doaz, bata bestearen menpe baitaude. Hau da, harreman dinamikoa bat existitzen da, bi prozesu hauen artean: salgaien produkzio eta erreprodukzio eta biztanleriaren erreprodukzioan. Bestetik, ordea, bi espazio hauen arteko muga oso aldakorra da, teknologia garapenaren eta errenta mailaren menpe dagoelarik. Adibidez, bazkaria etxeko andreak prestatutakoa izan daiteke edo jatetxe bateko sukaldariak prestatutakoa, edo baita ere, ONG batean borondatez prestatu duten pertsonen eginga. Gainera, aurrekoari gehitu behar zaio, egoera zehatz batzuk adibidez, krisiak, eragin dezakeela biztanleek merkatuko ondasunak etxean egindakoaz ordezkatzea, esaterako kanpoan jan ordez, etxean jatea (Carrasco, 2011).

Zirkuituaren goiko aldeak, lanaren zirkuito sinplea irudikatzen du ekonomiak tradizionalki ulertu duen moduan. Enpresek lan indarra behar dute produzitzeko eta lan horren ondorioz,

<sup>2</sup> Diagrama hau Picchio-ren diagraman oinarrituta dago, 2001.



ordainsari bat jasotzen dute. Ordainsari horrekin, etxeetan lan indarra erreproduzitzen delarik eta horrela produkzioaren prozesua berriro hasiko litzateke (Carrasco, 2011).

Hala ere, eskema honek mugak ditu (ekologikoaz gain), izan ere, oraingo gizartean ezinezkoa da etxeetan ordainsariarekin bakarrik erreproduzitzea. Horregatik zirkuitua handitzen da eta bertan ikusi daiteke etxeetan jasotako ordainsaria etxeko eta zaintza lanekin bateratzen dela etxeko kideen iraupen eta ongizaterako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak produzitzeko. Hala ere, aipatzekoa da etxeetan ordainsari eta etxeko eta zaintza lanez gain zerbitzu publikoen aportazioak erabili ditzaketela, zerbitzu edo transferentzien kontzeptupean. Etxeko eremuan produzitzen diren ondasun eta zerbitzuek alde batetik ongizatea handitzen dute, baina ekonomiak ez du inoiz Barne Produktu Gordinean kontuan hartu (Carrasco, 2011).

Beraz, aurrez esan bezala, argi ikusten da sistemak, ekonomia eta diruaren terminoetan, ezingo lukeela merkatuko lanekin soilik biziraun, etxeko-familiako lana oso garrantzitsua delarik. Izan ere, diagramaren beheko aldean adierazten den “produkzioa”-k, herritar guztiak erreproduzitzen ditu (Carrasco, 2011).

### IZEBERG-AREN IRUDIKAPENA

Bestetik, aipatutakoa hobeto ikusteko modu intuitiboan, Izeberg-a irudikatzeak laguntzen du. Ikustezinaren ideia funtsezkoa baita sistema sozioekonomikoa ulertzeko. Hori dela eta, izebergaren metafora erabiltzen da ekonomia grafikoki irudikatzeko eta horrekin batera, beren artean barne prozesu propioa duten bi eremu desberdinei erreferentzia egiteko. Ikusten den eremuak metaketa prozesua biltzen du (“produktiboa”) eta aldiz, ikusten ez den eremua da batez ere, bizitza sostengatzear arduratzen dena (ez “produktiboa”), hau da, zati erreproduktiboa, non, hau gabe sistemak ezin duen funtzionatu (Pérez, 2014). Beste era batera esanda, ikustezina den eremuan, naturatik lortutako baliabideak, zaintza eta etxeko lanak barneratzen dira eta aldiz, ikusten den eremuan, merkatu kapitalista, ekonomia finantzarioa eta Estatua barneratzen dira (Carrasco, 2017).

Ikustezina den zati honetan bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren eginbehar guztiak barneratzen dira: etxeko lanak, adin-txikiena, helduen edo mendekoak diren pertsonen zaintza, eta abar. Bai pertsonak ukitzen dituen guztia eta baita enplegu gunea eta fabrikak funtzionatzen jarraitzeko beharrezkoak direnak. Hau da, oinarri oinarritzkoak diren zereginak dira, lan hauek oraindik feminizatuta eta pribatizatuta jarraitzen dutelarik. Egungo sistema ordea, zaintzaren erantzunkizun eta beharrik ez duten subjektuentzat pentsatuta dago, beraz, ez dio errealitateari erantzuten. Izan ere, bizitzako momentu batean pertsona guztiok behar dugu zaintzea eta zainduak izatea (Gómez, 2018).

Horrela, izeberg-aren irudiak oso garbi irudikatzen ditu esfera sozioekonomiko guztiak, analisi eta garrantzia sozialari dagokionean, plano berdinean ipini gabe, esfera batzuk egitura osoaren oinarriak direla erakutsiz; eta oinarria ezinbestean ezkutatuta mantenduz. Azkenik, aipatu behar da ikustezina den esfera eta ikusten den esferaren bereizketa analitikoki eta politikoki erabilgarria dela, baina ez dela argia (Pérez, 2014).



ere sortzen baitu balioa. Azken lan honi dagokionean, ez da modu naturalean sortu eta garatzen, sistema sozioekonomikoa erreproduzitzeko oinarritzko eta beharrezko baldintza moduan produzitu eta erreproduzitzen da (Carrasco, 2017).

Bestetik, nahiz eta lanean zehar “lan erreproduktibo”-a asko erabili, garrantzitsua da aipatzea, izendapen hori ez dela oso egokia. Izan ere, etxeetan ere produzitzen da: jana, arropa, zerbitzuak, eta abar, hauen aniztasuna kantitate eta kalitatean etxeko errenta mailaren arabera baldintzatuta dagoelarik batez ere (Carrasco, 2017).

Eremu politikoan, etxeko lana eta zaintzaren inguruan ez da eztabaidatzen, hori oinarritzko arazoa delarik eta horrez gain, bere garrantzia soziala ezkutatu egiten da, horren konponbidea emakumeen esku utziz (Carrasco, 2017).

Aipatu behar da, denboraren antolaketak gizarte eta ekonomia antolaketaren eremu guztiei eragiten diela. Gainera, norberaren denbora kudeatzeko aukera funtsezko gaia da pertsonaren bizi kalitatean, batez ere emakumeentzat.

Asko hitz egin da emakumeen presentzia/ausentzia bikoitzaz lan denbora, zaintza denbora eta ohiko bizitzan horrek sortzen dituen tentsioekin harremanetan (Carrasco, 2017). Izan ere, gaur egun oraindik bizirik dago eremu produktibo eta erreproduktiboaren arteko talka. Nahiz eta emakumeak soldatapeko lanetan murgildu eta ondorioz lan harreman eta antolaketa soziala aldatu (gizon batzuk beren burua zaintzeko autonomia eskuratu dute, zaintzari dagokion lana partekatzeko negoziatziora jotzeko joera, eta abar) ez baitu ekonomia antolatzeke eredu berri bat sortu. Hau da, emakumeak lan munduan sartzeak ez du berarekin zaintza eta etxeko lanen bazterketa ekarri eta gizonei oraindik zaintza eta etxeko lanei dagokionean “laguntzaile” izaera ematen zaie (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2016).

Horrek ordea, emakumeei kalte handiak eragiten dizkie besteak beste, etxeetan ordaindu gabe emakumeek egiten dituzten zaintza lanen baldintzak direla medio, ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaileak, ordaindutako lanetan sartzea eta bertan jarraitzea eragiten dute, eta horrek zaintza arloko langile guztien baldintzetan eragiten du. Zirkulu honek (ordaindu gabeko zaintza lana -ordaindutako lanak- eta ordaindutako zaintza lanak), zaintza arlotik at ordaindutako lanean, genero desberdintasunak eragiten ditu eta horrez gain, etxe barruan genero desberdintasunean eta ordaindu gabeko zaintza lanak egiterakoan emakume eta gizonen ahalmenean eragiten du (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:2).

### **3. ZAINTZAREN EKONOMIA NAZIOARTEAN**

Behin, lanaren marko teorikoa aztertuta, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera aztertu aurretik, mundu mailako ikuspegia ematea ondo legoke. Izan ere, mundu mailan ere ematen dira genero desberdintasunak. Beraz, nazioarteko egoera aztertzeke zaintza ekonomiaren inguruan Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) egin berri duen txostena hartuko dut oinarri

moduan. Txosten honek, mundu osoko 90 herrialde baino gehiagotatik ateratako datu originalak biltzen ditu.

LNE-ren txosten berriak “*zaintza lanak eta zaintza lanetan diharduten langileak, etorkizuenan lan duina izateko*”, zehatz mehatz aztertzen du ordaindutako zaintza lana eta ordaindu gabekoa eta baita ere eraldatzen ari den lan-munduarekin duen harremana. Puntu nagusia, etxeetan eta lan-merkatuan ematen diren genero desberdintasun iraunkorrek dira, hauek zaintza lanekin lotuta daudelarik. Argitu behar da, aurreko puntuan adierazi dudan moduan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak zaintza lanak aipatzean, bere barne hartzen dituela etxeetan burutzen diren zaintza lanak (zaintza zuzena) eta etxeko lanak (zeharkako zaintza), ordainduta zein ordaindu gabe egiten direnak (Lanaren Nazioarteko Erakundeak, 2018:1). Aldiz, 3.2 puntuan zaintza-zerbitzuaren kontzeptua agertuko da, kontzeptu horrek, espazio publikoari erreferentzia egiten diolarik, aurreko puntuan argitu dudan moduan.

Mundu osoan, zaintza lanak nagusiki ordaindu gabeko zaintzaileek burutzen dituzte, zaintzaile gehienak emakumeak direlarik. Lan hauek neurritz gain burutzen direnean aukera ekonomikoak eta ordaindu gabeko zaintzaileen ongizatea oztopatzen ditu, horrez gain, beraien giza-eskubideak kaltetu ditzakeelarik.

Etxeetan ordaindutako zaintza lanetan jarduten duten langileak ere batik bat emakumeak dira, askotan atzeritarrak eta ekonomia informalean jarduten dutenean prekarioak diren baldintzetan jarduten dute, oso baxua den ordainsari baten truke.


### **3.1 ORDAINDU GABEKO ZAINZA LANAK ETA GENERO DESBERDINTASUNAK LANEAN**

Ordaindu gabeko zaintza lanek herrialdeetako ekonomian ekarpen garrantzitsua egiten dute, ongizate indibidual zein gizarte ongizatean besteak beste. Ordaindu gabeko zaintzaileek mundu guztiko zaintza betebeharrak gehienak asetzen dituzte. Hala ere, beraien lana normalean ez da aitortzen eta ikusezin jarraitzen du, erabakiak hartzeko unean kontuan hartzen ez direlarik.

Bigarren grafikoan, argi eta garbi ikusten da eskualde guztietan, diru-sarrerak edozein izanik, emakumeek denbora gehiago eskaintzen dietela ordaindu gabeko zaintza lanei gizonek baino. Eta aldiz, ordaindutako lanetan, gizonak dira nabarmen denbora gehien eskaintzen dietenak. Egia da, eskualde bakoitzean desberdina dela emakume eta gizonek jarduera bakoitzari eskaintzen dioten denbora, baina guztietan sexu banaketa hori mantentzen da. Mundu mailan, salbuespenik gabe, emakumeek burutzen dute ordaindu gabeko zaintza lanen hiru laurdena, lan horietara eskaintako denbora guztitik %76,2 zehazki, gizonek eskaintakoa baino 3,2 aldiz gehiago. Inongo herrialdeetan ez da erregistratu gizon eta emakumeek eskaintako berdintasunezko zaintza lanik. Amerikan esaterako, emakumeek gizonek baino 1,7 aldiz gehiago eskaintzen diete ordaindu gabeko zaintza lanei, Estatu Arabiarretan ordea, diferentzia askoz ere handiagoa da, 4,7 aldiz handiagoa zehazki. Hala ere, aipatu behar da, mundu osoan, ordaindu gabeko zaintza lanak askoz ere intentsoagoak direla, diru-sarrera ertainak dituzten

emakumeentzat, hezkuntza-maila txikiarekin, landa-eremuan bizi eta berain seme-alabak eskolara joateko adinean ez daudenean batik bat (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:4).

## 2. GRAFIKOA: ORDAINDU GABEKO ZAINITZA LANEI, ORDAINDUTAKO LANEI ETA LAN GUZTIARI EGUNERO ESKAINITAKO DENBORA, SEXUAREN, ESKUALDEAREN ETA DIRU-SARREREN ARABERA



Iturria: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:4

Emakumeen ordaindutako lanak ez du bere kabuz, automatikoki ordaindu gabeko lanean dagoen sexu banaketa eraldatzen. Gainera, eskualde guztietan (diru-sarrera edozein izanda) ordainsari baten truke egindako lana eta ordaindu gabeko zaintza lanak batera hartu ezker, emakumeen eguneko lanaldia (7 ordu eta 28 minutu) gizonena (6 ordu eta 44 minutu) baino luzeagoa da, nahiz eta herrialdeen artean desberdintasun handiak existitu (ikusi 2. grafikoa). Honek eragiten du, sistematikoki emakumeek gizonen baino denbora libre gutxiago izatea (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:5), denbora “librea” ongizaterako garrantzitsua delarik.

Herrialde batzuetan gizonen parte-hartzea zaintza lan ez ordainduetan igo egin da azken hogeitun urteetan. Hala ere, 1997 eta 2012 urte bitartean, ordaindu gabeko zaintzei eskainitako denborari dagokionean, generoen artean dagoen diferentzia 7 minututan soilik murriztu da datu kronologikoak dituzten 23 herrialdeetan (1 ordu eta 49 minututik 1 ordu eta 42 minutura). Erritmo honetan, herrialde horietan ordaindu gabeko zaintza lanetan generoen arteko diferentziarik ez egoteko 210 urte itxaron beharko ditugu. Erritmo motel honek, zalantzan jartzen du azken bi hamarkadetan ordaindu gabeko zaintza lanetan banaketaren inguruan hartutako erabaki politikoaren (iraganekoak eta oraingoak) eraginkortasuna (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:5), adibidez kontziliazio neurriena (neurri hauek azken puntuak landuko dira).

Mundu mailan, lanean aritzeko adinean dauden emakumeak lan indarretik kanpo egotearen arrazoi nagusia, ordaindu gabeko zaintza lana da. Gizonen artean berriz, ikasten egotea, gaixorik edo ezgaituta egotea dira arrazoi nagusiak. 2018an lanean aritzeko adinean dauden 606 milioi emakumeek adierazi dute ez daudela libre lanean aritzeko edo ez direla enplegu baten bila ari, ordaindu gabeko zaintza lanen ondorioz. Aldiz, 41 milioi gizon inaktibo daude arrazoi berdinengatik (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:6).


LNE-ak eta Gallupek (Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Gallup, 2017) 2017an egindako txosten batean ondorioztatu zen, mundu mailan emakumeen gehiengoak nahiago zuela ordainsari baten truke lan egitea, lan indarrean ez zeuden emakumeak barneratuta (%58) eta gizonak ados zeudela. Horrek esan nahi du, lan indar potentzial honen zati handi bat aktibatu daitekeela, politika, zerbitzu eta zaintza azpiegituretarako sarbide unibertsal bidez.

Zaintzaren erantzunkizuna duten emakumeak lan indarrean parte-hartzerako orduan zigortuak izaten dira. Honela dio LNE-ren txostenak: *Existe una «penalización en la participación en la fuerza de trabajo» para las mujeres con responsabilidades de cuidado, y una «prima en la participación en la fuerza de trabajo» para los hombres que viven con beneficiarios de cuidados.* Gainera, emakume ezkongabeekin alderatuta, familia handietan bizi diren emakumeek lan-merkatuan aktiboak izateko %16,6 probabilitate gutxiago dute (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:7).

Enplegu bat izatearekin batera familia erantzunkizunak izatea mundu osoan oso arrunta da. Salbuespenik gabe, emakumeek ordaindu gabeko zaintzari eskainitako denbora nabarmen handitzen da etxean haur txikiak daudenean. Honi enpleguan amatasunarekin loturiko zigorra deritzogu, zigor hau mundu mailan ikusten da eta sistematikoki ematen da eskualde guztietan haur txikiak dituzten emakumeetan. 2018. urtean, 5 urte baino gutxiagoko haurren amek enplegu-tasarik txikiena erakusten dute (%47,6), ez bakarrik aita (%87,9) eta guraso ez diren gizonekin (%78,2) alderatuta, baita ere haur txikiak ez dituzten emakumeekin (%54,4) alderatuz (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Hirugarren grafikoan ikus daitekeen moduan, enplegu-tasari dagokionean aiten artean ez da ia aldaketarik existitzen herrialde eta eskualde guztietako biztanleen artean. Amei dagokienean berriz, nabarmen aldatzen dira enplegu-tasak. Guraso izatearekin loturik enpleguan dagoen diferentzia (hau da, 0-5 urte azpiko haurrak dituzten ama eta aiten artean enplegu-tasan dagoen diferentzia), mundu mailan %40,3koa da. Afrikaren atzetik Europa eta Erdialdeko Asiak erakusten dute gurasotasunarekin loturik enpleguen artean diferentziarik txikiena, nahiz eta eskualdeen artean desberdintasun nagusiak antzeman. Honek, herrialde desberdinetan publikoki eskainitako zaintza politika eta zerbitzuen eskuragarritasun eta kalitate desberdinak adierazten ditu (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

### 3. GRAFIKOA: 0-5 URTE BITARTEKO HAURREN GURASOAK DIREN EMAKUME ETA GIZONEN ENPLEGU-TASA ETA 0-5 URTEKO HAURREN GURASO EZ DIREN EMAKUME ETA GIZONENA, AZKEN URTE ERABILGARRIAN



Iturria: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:8

Hirugarren grafikoa ikus daitekeen moduan, emakume helduek enplegu bat edukitzearekin batera erantzunkizun familiarak baditu, ordainsari edo irabazi baten truke ordu gutxiagoz lan egiteko probabilitate gehiago dute gizon helduek edo guraso ez diren emakumeek baino. Mundu mailan, etxean 6 urte baino handiagoak diren haurrekin bizi diren emakume landunak, astean bataz beste 42,3 ordu egiten dute lan, gizonen astean egiten duten 46,1 lan-orduekin alderatuta. Honek esan nahi du ordainsari baten truke egindako lanari dagokionean generoen arteko aldea 3 ordu eta 48 minutukoa dela astean. Aldiz, haur txiki batekin bizitzeko diferentzia 5 ordukoa da (gutxi gora-behera emakumeek astean ordainsari baten truke ordu bete gutxiago egiten dute lan eta gizonen astean 18 minutu gehiago). Eskualde guztietan, ordaindutako enpleguari eskainitako orduetan genero arteko diferentzia igo egiten da haur kopurua igotzen doan heinean (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:8).

Astean lan egindako orduen dagokionean, 6 urte azpiko haurrak dituzten ama eta aita artean diferentziarik txikiak dauden eskualdeak, Asia eta Pazifikoa dira, inkestatutako herrialdeen artean eta diferentziarik handiena berriz, Europa eta Erdialdeko Asian daude.

Ordaindu gabeko zaintza lana, emakumeek kalitate handiagoko lan bat bilatzean aurkitzen duen oztoporik nagusia da. Honek emakumeek ordainsari edo irabazi baten truke jardundako lan-ordu kopuruari eta ondorioz, ordainsariari, enpleguan duten egoerari eta lan-baldintzei eragiten dielarik. Gainera, nagusiki gizonenak diren enplegu batzuetan izandako lanaldi luzeak elementu eragozleak dira ordaindu gabeko zaintzaileentzat edo zaintzaile potentzialentzat, horrek lanbide bereizketan laguntzen duelarik. Horrez gain, lanaldi luzeak burutzearen ondoriozko soldatan

emandako saria handitzen ari da eta horrek berriz, gizon eta emakumeen hilabeteko ordainsarien arteko diferentzia handitzen du (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:9).

Hori dela eta, mundu mailan, ordainsari bat jasotzen duten emakume langileen portzentaia zaintzaileen artean askoz ere txikiagoa da (%62,2), zaintzaileak ez diren emakumeena baino (%67,8). Gainera, ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaileek lanean askoz ere baldintza txarragoak izaten dituzte. Adibidez, ordainsaririk jasotzen ez duten emakume zaintzaileek probabilitate gehiago dituzte ekonomia informalean lanean aritzeko (%62), zaintzaileak ez diren emakumeak baino (%56,8) (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:9-10).

### **3.2 ZAINTZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEAK ETA ZAINTZAREKIN LOTURIKO ENPLEGUA**

Atal honetan ordaindutako zaintza eskaintzen duten pertsonen edo langileen egoera aztertuko dut nagusiki. Hori dela eta, zaintza lanetan aritzen diren langileez gain, espazio publikoan zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen lan egoera ere kontuan hartuko dut.

#### **ZAINTZA-ZERBITZUETAN LAN EGITEN DUTEN EMAKUMEEN KOPURUA**

Zaintza-zerbitzua ematen duten munduko lan-indarrak, bere barne hartzen ditu zaintza sektoreko langileak (hezkuntzan, osasunean eta gizarte-langintzan) eta baita ere beste sektore batzuetan lan egiten dutenak, etxeko lanetan aritzen diren langileak eta baita zaintza eskaini gabe zaintzaren sektorean lan egiten dutenak, zaintza-zerbitzu hauei laguntza ematen. Zaintzarekin lotutako enplegua enplegu-iturri garrantzitsua da mundu osoan, batez ere emakumeentzat. Guztira zaintza-zerbitzuei eskainitako munduko lan-indarra 381 milioi langilera igo da, horietatik 249 milioi emakumeak direlarik eta 132 milioi gizonak. Gutxi gora-behera zaintzari eskainitako munduko lan indarraren bi heren emakumeek osatzen dute. Amerika, Europa eta Erdialdeko Asian proportzio hori hiru laurdenetara igotzen delarik (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Zaintza langileen gehiengoa hezkuntzaren (123 milioi), osasunaren eta gizarte-langintzaren (92 milioi) sektorean daude lanean, hauek 2018an munduko enplegu totalaren %6,5a irudikatzen dute eta etxeko langileek berriz, % 2,1a. Aldiz, zaintzaren sektorean lan egiten duten baina zaintza-zerbitzurik ematen ez dituzten langileek (adibidez, sukaldariak, kontableak edo garbiketako langileak) munduko enplegu totalaren %2,2a osatzen dute (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

#### **ZAINTZA ARLOKO LANGILEEN KALITATE TXARREKO ENPLEGUAK**

Zaintzan lan egiten duten langileek ezaugarri bereizgarriak dituzte: zaintza eskaintzen dute, zaintzaren onuradunekin harremanak dituzte, askotan hauekin zaintza harreman luzeak izanez; gainera, sarri, zaintzen dituzten pertsonen eta zaintza baldintzen artean hainbat tentsio izaten dituzte, gehieneak emakumeak direlarik. Hala ere, ez da talde homogeen bat, ordainsariari,



lanaren baldintzari eta estatusari dagokionean, zaintza langileen artean hierarkia desberdinak existitzen dira (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Erizainek osatzen dute osasunaren arretaren sektorean langile talderik handiena eta horrez gain, sektorean erizaintza da profesiorik feminizatuena oraindik. Hauen ordainsariak askotan oso baxuak dira eta ondorioz, erizainek, sarri lan bat baino gehiago izaten dituzte edo beren lan orduak handitzen dituzte edota aparteko orduak sartzen dituzte. Praktika hauek, zaintzaren kalitatea urritzen dute eta lana eta bizitza familiarren kontziliazioan eragin negatiboak dituzte. Zaintza pertsonalera dedikatzen diren langileak ere, soldata baxuei eta lan-baldintza prekarioei aurre egin behar izaten diete, diskriminatzaileak diren praktikak jasan behar izaten dituztelarik askotan (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Hezkuntza sektoreari dagokionean, azken hamarkadetan, aldi baterako lanaldiak eta lanaldi partzialak igo egin dira. Herrialde guztietan, haur hezkuntzako irakasleen estatusa, ordainsaria eta jasotzen dituzten prestazioak lehen hezkuntzako irakasleenak baino okerragoak dira. Horren ondorioz, langileen poztasun maila eta pertsonen atxikitze tasa oso txikiak dira bultzatuz (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Hala eta guztiz, zaintzari eskainitako lan indar guztien artean etxeko langileek jasaten dituzte baldintzarik txarrenak. Sektore honetako lana iragarriezina eta noizbehinkakoak dira eta babes sozial eta lan babes txikiak dituzte. Gainera, etxeko lanen sektorean lan-indarkeria non-nahi ikus daiteke (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Zaintza langileen kalitate txarreko enpleguak, kalitate txarreko zaintza lanak izatera gidatzen ditu. Honek, zaintza jaso, zaintza eman eta ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaileen ongizatea kaltetzen duelarik. Adibidez, ospitaleetan erizainen lan-karga handitzeak ospitaleko erien hiltzeko arriskua handitzen du; zaintza pertsonaleko langileen kasuan, egutegi estua izateak eskatutako zaintzak emateko beharrezkoa den malgutasuna gabetzen du; eta hezkuntzari dagokionean, irakasleko ikasle portzentai haundia izatea hezkuntzan emaitza txarragoekin lotzen da (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Kalitate oneko enpleguak, genero berdintasuna sustatzen duen zaintzarekin lotuta, alderdi guztie egiten die mesede (zaintzaren onuradunei, zaintzan aritzen diren langileei, ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaileei) eta gainera posiblea da, egin daiteke. Horrela erakusten du, 2030. urterako egin zen simulazio makroekonomikoaren ikerketak (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Behin Nazioarteko egoera aztertuta, ondo legoke Espainiaren kasua aztertzea atal honi amaiera emateko. Hori dela eta, hurrengo taulan Espainiako egoera zehatza aurkezteko datu batzuk ematen dira. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Bulegoak, 2018. urtean Espainiaren perfil zehatzari buruz egindako txostena erabili dudalarik: “*zaintza lanak eta zaintza lanetan diharduten langileak, etorkizuenan lan duina izateko*”.

## 1. TAULA: ZAINZA LANAREN BANAKETA ESPAINIAN

Txostenaren arabera, Espainia, Europa eta Erdialdeko Asian ordaindu gabeko zaintzan egunero lan gehien egiten den Estatua da. Zehazki 2018an 130 milioi ordu igaro zituzten ordaindu gabeko zaintza lanetan. Kopuru hori, 16 milioi lagunek egunean zortzi ordu inolako ordainsaririk jaso gabe lan egitearen parekidea delarik. Zerbitzu hauek ordu bakoitzeko gutxieneko soldata oinarri hartuta baloratuko balira, Espainiako Barne Produktu Gordinaren % 14,9a osatuko lukete. Mundu mailan berriz, lan hauek BPGren %9a irudikatzen dute (La Vanguardia, 2018).

Horrez gain, txostenak, azpimarratzen du, ordaindu gabeko zaintza lanei eskainitako denboraren %68a emakumeek burutzen dutela. Hala ere, soldatarik gabeko zainketen lanari egindako emakumeen ekarpenari dagokionean, azken 20 urteetan, urteko abiadura murriztu egin da, egunean 2,1 minututan. Gizonena aldiz, igo egin da, 1,1 minututan (La Vanguardia, 2018).

Hori dela eta, LNE-ak uste du, ordaindu gabeko zaintza lanen banaketa ezberdinak, emakumeen enpleguei negatiboki eragiten diela. Egindako ikerketaren arabera, lan egiteko adinean dauden emakumeen %25ak adierazi zuten ordaindu gabeko zaintza lanak direla medio, ez zeudela libre edo ez zutela lanik bilatu nahi (2018ko datuak). Ehuneko hori haundia da gainerako herrialdeekin alderatzen badugu. Zehazki, Portugalen %13koa da proportzio hori, Frantzia %10ekoa eta Europa eta Asia Erdialdeen batz bestekoa %23koa (La Vanguardia, 2018). Hori dela eta, ikus dezakegu Espainiaren egoera ez dela oso ona, kasu honetan.

Espainian, 3,8 milioi pertsona aritzen dira ordaindutako zaintza-zerbitzuetan, horietatik 2,9 milioi emakumeak direlarik eta gizonak 936.000. Datu hauek enplegu guztia kontuan hartuta %20,8a irudikatzen dute eta emakumeen enpleguen %34,4. Aldiz, zaintzari eskainitako lanetik kanpo dagoen langile proportzio handia, etxeetan lan egiten duten etxeko langileen kopuruak azaltzen du zati batean (emakumeen enpleguen %6,5a irudikatzen baitu) LNE-ren arabera (La Vanguardia, 2018).

Horrez gain, Erakundearen ustetan, sektoreko erronkarik handien artean, beste batzuekiko lan hauen soldata txikiei aurre egitean dago. Adibidez, osasunaren sektorean, erizain eta matronen soldatak medikuen %35a suposatzen dute (La Vanguardia, 2018).

Honela dio LNEak: "Neurri berritzaileetan aurrera egin behar dugu, zaintzan aritzen diren langileek beren ordezkartza, elkarrizketa sozial eta negoziazio kolektiborako eskubideak gauza ditzaten errazteko" (La Vanguardia, 2018).

#### **4. EAE-KO ZAINZAREN EKONOMIAREN HURBILKETA, DENBORAREN ANALISITIK ABIATUTA**

Aurreko atalean nazioarteko egoera aztertu ostean, euskal gizartearen analisiari ekingo diot emakume eta gizonen denboraren kudeaketa nolakoa den islatuz, eta horretarako, Eustaten Denboraren Aurrekontuen Inkestatik (DAI) ateratako datuak plazaratu eta aztertuko ditut, 1993 urtetik 2013 urte bitartekoak. Izan ere, denboraren erabileran ematen diren desberdintasunak adierazle garrantzitsu bihurtu dira genero desberdintasuna aztertzeko orduan (Rodríguez eta Ugidos, 2015). Lehenik, denbora sozialari buruzko datuak azalera ditut sarrera moduan eta ondoren zaintza eta etxeko lanetara joko dut, atal honekin amaitzeko bizitzaren sostenguaz hitz egingo dudalarik. Hala ere, ezer baino lehen komenigarria da DAI-ren inguruan zenbait gauza argitzea.

Aurretik aipatu moduan, etxeko lan eta zaintzaren barruan, errentarik (zentzu klasikoan) sortzen ez duten hainbat lan burutzen dira egunero. Hala ere, tradizionalki datu estatistikoetan ez dira kontuan hartu lan hauek. Etxeko lanen inkestetan “sus labores” moduan agertzen dira eta oraindik, Biztanleria Aktiboaren Inkestetan, lan horietara jardunaldi osoan dedikatzen direnak ez aktibotzat hartzen dira. Horrela, lan horrek ekonomiari egiten dion ekarpena ezkutatu. Aipatzekoa da, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoa ekoizpen/produktzioaren kontu satelitean aintzindaria izan dela, Estatu osoan Autonomia Erkidego bakarra delarik eta Europar lurraldean ere modu sistematikoan burutzen dituen lurralde gutxienetako bat da (urtez behin 1993. urtetik aurrera) (Larrañaga, 2018).

Eustatek bost urteko maiztasunez ateratzen ditu Denbora Aurrekontuen Inkestatik ateratako datuak. Denbora Aurrekontuei buruzko Inkestak (DAI) biztanleriaren eguneroko bizimoduari buruzko informazio exhaustiboa eskaintzen du, eguneroko denboraren erabileraren ikuspegitik. Hori dela eta, inkestak eguneroko jardueretan denbora nola banatzen den zenbatzen du. Normalean, azterlanaren xede den biztanleria 16 urte edo gehiagoko herritarrek osatzen dutelarik, salbuespenak salbu (Iradi, 2015: 3).

Denbora Aurrekontuei buruzko Inkestetan adierazle nagusiak hauek dira:

- ❖ **Bataz besteko denbora partaideko:** aztertutako populazioak, batez beste zenbat denbora ematen duen jarduera jakin batean, alegia, jarduera hori benetan egiten duen populazioak (Iradi, 2015).
- ❖ **Partaidetza-tasa:** jarduera zehatz bat egiten duten pertsonen portzentaia (Iradi, 2015).
- ❖ **Bataz besteko denbora soziala:** aztertutako populazioak, osotasunean hartuta, bataz beste zenbat denbora ematen duen jarduera jakin batean. Horrela, aztertu den biztanleria osoan jarduera bakoitzak zenbat pisu duen erakusten du, bai eta zenbat pisu duen gainerako jarduerekin alderatuta (Iradi, 2015).

Bataz besteko denbora soziala, denbora-erabileraren adierazle egokia da, herrialdeen arteko eta biztanleria-taldeen arteko konparazioak egiteko aukera ematen duelako (Iradi, 2015). Hori dela eta, bataz besteko denbora sozialaren adierazlea erabiliko dut interesatzen zaizkigun datuak emateko. Hala ere, garrantzitsua da aipatzea, partaideko bataz besteko denboraren adierazlea erabiliz inkestetan askoz ere datu handiagoak jasotzen direla, bataz besteko denbora sozialarekin alderatuta.

Denborari buruz egindako azterketa oso erabilgarria da ohiko bizitzan oso gutxi araututa dauden eremuak ikustarazteko, etxeko lanak esaterako, horrekin batera eremu honetan ematen diren genero desberdintasunak azaleratuz (Legarreta eta Sagastizabal, 2018). Izan ere, inkesta hauek etxeko eta zaintza lanei buruzko informazio kuantitatiboa eskaintzen dute. Horrela, gizartean burutzen den lan totalaren bolumena eta banaketa ikustaraziz. Hauek, etxeko sektorean produzitzen denaren moneta balioa kalkulatzeko oinarriak dira (Rodríguez eta Ugidos, 2017:167).

Etxeko kudeaketa eta administrazioarekin zerikusia duten lan mentalarekin loturiko denbora ordea, ezin da zenbatu inkesta hauen bitartez: zereginak zenbatzen dira baina kezka ordea ez. Bestetik, denboaren intentsitatea edo aldiberekotasuna zenbatzen oso zaila da, kontuan izanda etxeko eremuan oso ohikoak direla: janaria prestatzen egotea garbigailua noiz bukatuko den zain eta bitartean seme-alabei etxeko lanetan lagunduz, irratia jarrita (Legarreta eta Sagastizabal, 2018).

#### **4.1 DENBORA SOZIALA ETA GENERO-IKUSPEGIA**

Gizartean ematen diren sexu-banaketak oso ondo ikus daitezke denboraren bidez, beraz, ekintza sozial desberdinetan ematen den denboraren erabilpena adieraztea ezinbestekoa da egunez egun ematen diren sexu banaketak ikusteko. Horretarako, segidan gizon eta emakumeek jarduera-multzo nagusietan igarotako bataz besteko denbora soziala erakusten duen taula aztertuko dut.

**2. TAULA: BATAZ BESTEKO DENBORA SOZIALA (OO:MM),  
JARDUERA-MULTZO NAGUSIETAN. EUSKAL AE-AN. 1993-2013**

	1993	1998	2003	2008	2013	1993-2013
<b>Beharrizan fisiologikoak</b>						
Gizonak	11:24	11:30	11:51	11:43	11:53	+0:29
Emakumeak	11:27	11:37	11:48	11:38	11:59	+0:32
<b>Lan ordaindua eta formakuntza</b>						
Gizonak	4:15	4:16	4:14	4:00	3:16	-0:59
Emakumeak	2:04	2:26	2:35	2:49	2:22	+0:18
<b>Etxeko lanak</b>						
Gizonak	1:03	1:10	1:10	1:19	1:37	+0:34
Emakumeak	4:16	3:37	3:31	3:25	3:08	-1:08
<b>Zaintzak etxeko pertsoneri</b>						
Gizonak	0:12	0:14	0:12	0:19	0:21	+0:09
Emakumeak	0:27	0:26	0:29	0:36	0:36	+0:09
<b>Gizarte bizitza</b>						
Gizonak	1:16	1:08	1:04	0:41	0:45	-0:31
Emakumeak	1:04	0:58	0:52	0:36	0:44	-0:20
<b>Aisia aktiboa eta kirolak</b>						
Gizonak	1:22	1:23	1:27	1:38	1:47	+0:25
Emakumeak	0:58	1:02	1:08	1:05	1:11	+0:13
<b>Aisia pasiboa</b>						
Gizonak	3:22	3:03	2:46	3:10	3:05	-0:17
Emakumeak	2:49	2:45	2:33	2:48	2:52	+0:03
<b>Joan-etorriak</b>						
Gizonak	1:03	1:15	1:14	1:09	1:18	+0:15
Emakumeak	0:52	1:05	1:03	1:03	1:08	+0:16

Iturria: Zubero, 2015:60

Bigarren taula honetan, jarduera-multzo nagusiak agertzen dira. Lehenik eta behin ordea, guri gehien interesatzen zaizkigun jarduerak komentatuko ditut: lan ordaindua eta formakuntza, etxeko lanak eta etxeko pertsonen zaintza.

2013ko datuei dagokionean, hauek dira<sup>3</sup>:

- ❖ Lan ordaindu eta formakuntzari dagokionean, gizonak 3 ordu eta 16 minutu eskaini diote egunean eta emakumeek berriz, 2 ordu eta 22 minutu;
- ❖ Etxeko lanetan, berriz, datuek erakusten dute etxeko lana dela euskal emakumeek egunean bataz beste denbora gehien eskaintzen dioten jarduera nagusia. Termino absolutuetan, 3 ordu eta 8 minutu, gizonak eskainitakoaren bikoitza zehazki, azken hauek, 1 ordu eta 37 minutu eskaintzen dietelarik;
- ❖ Etxeko pertsonen zaintzan ordea, eskainitako denbora askoz ere txikiagoa da, gizonak egunean 21 minutu eta emakumeek 36 minutu.

Datu hauek emanda, beraz, argi ikus daiteke, 2013. urtean gizonak lan ordaindu eta formakuntzari eskaini diotela egunean denborarik gehiena aipatutako jardueren artean eta emakumeek berriz, etxeko lanei. Bestetik, jarduera bakoitzean 2013. urtean igarotako denbora ikusten badugu, bai emakume eta bai gizonak eskainitako denborak kontuan hartuta, esan daiteke lan ordaindua eta formakuntzari eskaini zaiola orokorrean denbora gehien 2013. urtean eta ondoren berriz etxeko lanei. Aldiz, zaintzari eskaintzen zaion denbora beste biek alderatuta, oso txikia dela aipatu behar da.

1993. urteko datuak aztertzen baditugu, berriz, ikus dezakegu:

- ❖ Ordaindutako lan eta formakuntzari gizonak 4 ordu eta 15 minutu eskaintzen zieten eta emakumeek berriz, 2 ordu eta 4 minutu, hau da, gizonak eskainitako denboraren erdia;
- ❖ Etxeko lanei dagokienean, berriz, 1993an gizonak 1 ordu eta 3 minutu igarotzen zituzten egunean eta emakumeek berriz, 4 ordu eta 16 minutu;
- ❖ Etxeko pertsonen zaintzari dagokionean berriz, egunean gizonak 12 minutu igarotzen zituzten eta emakumeek berriz, 27 minutu.

1993. urteko datuak ikusita, aipatu behar da, hiru jarduera multzoetan emakumeek eta gizonak eskainitako denboraren arteko diferentzia askoz ere nabarmenagoa dela 2013. urtearekin alderatuta:

- ❖ Ordaindutako lanari dagokionean, bigarren taulara jotzen badugu, ikus dezakegu 1993. urtean lan ordaindua eta formakuntzari dagokionean, emakumeek gizonak eskainitako denboraren erdia eskaintzen zieten jarduera horiei, aldiz, 2013an hiru laurdenetara ailegatu da. Hala ere, aipatu behar da, eskainitako denbora sozialak kontrako bilakaera izan duela emakume eta gizonen artean, lehenengoek dedikazioa handitu duten bitartean (2 ordu eta 4 minutu izatetik 2 ordu eta 22 minutu izatera), bigarrenak txikitu egin

---

<sup>3</sup> Aipatu 2013. urteko datuak azaltzeko orainaldia erabili dudala, azken datuak direlako.

duklarik (4 ordu eta 15 minututik, 3 ordu eta 16 minutura) (Sagastizabal eta Luxán, 2015:393).


- ❖ Etxeko lanetan, 1993ko datuei erreparatzen badiegu, ikus daiteke emakumeek gizonek eskaintako denboraren laukoitza igarotzen zutela. Hala ere, aipatu behar da, diferentzia hori 1993tik 2013ra murriztu dela, izan ere, gizonek etxeko lanei 34 minutu gehiago eskaintzen diote (1 ordu eta 3 minutu izatetik 1 ordu eta 37 minutu izatera) eta emakumeek berriz, ordu bat eta 8 minutu gutxiago (4 ordu eta 16 minutu izatetik 3 ordu eta 8 minutu izatera). Azpimarratu behar da, ordea, emakume eta gizonen artean diferentzia handiena azaleratzen duen jarduera dela etxeko lanena, eskaintako denbora kontuan hartuta. Ondorioz, nabarmen ikusten da oraindik jarduera horretan emakumeak arduratzen direla nagusiki.
- ❖ Zaintzari dagokionean, bai emakume eta bai gizonek emandako batz besteko denbora soziala igo egin da, 1993an emakumeek egunean batez beste 27 minutu ematen zituzten zainketa lanetan etxean eta 2013. urtean aldiz, 36 minutu. Beraz, emakumeen batz besteko denbora soziala 9 minutu gehiago igo da, 20 urteetan. Gizonei dagokienean ere, 9 minutu igo da, baina kontuan hartu behar da zaintzan emandako denboraren abiapuntua baxuagoa zela. Hain zuzen ere, 1993an batez beste egunean 11 minutu ematen zituzten zeregin hauetan eta, 2013an 20 minutu (ikusi 2. taula).

Laburtuz, emakumeek bi hamarkadetan zehar etxeko lanetan igarotako batz besteko denbora murriztu egin dute (ordu bat gutxiago) eta horrekin batera enpleguan denbora gehiago inbertitu dute modu nabarmenean (45 minutu 1993 eta 2008 urte bitartean). Gizonei dagokienean, ordaindutako lanean emakumeek baino denbora gehiago igarotzen dute 2013. urtean beraien jarduera nagusia izaten jarraitzen duelarik (3 ordu eta 16 minutu). Etxeko lanei eskaintako batz besteko denbora soziala emakumeek eskaintzen dietenaren erdia da. Horrek esan nahi du, beren denbora osoaren bi heren baino zertxobait gutxiago (%62) eskaintzen dietela enpleguari eta heren bat baino zertxobait gehiago etxeko lanei (%38). Hala ere, gizonek bi hamarkadetan zaintza eta etxeko lanei dagokienean eskaintako denbora handitu egin da (ordu bete gehiago), eta ordaindutako lan eta formakuntzari dagokionean berriz, murriztu (43 minutu gutxiago) (Rodríguez eta Ugidos, 2017: 177).


Aipatutakoa hobeto ikusteko, hona hemen grafiko hauek:

#### 4. GRAFIKOA: EMAKUME ETA GIZONEK LANARI ESKAINITAKO BATAZ BESTEKO DENBORA SOZIALAREN (HH:MM) GARAPENA, EAE-AN 1993-2013

##### EMAKUMEAK



##### GIZONAK



Iturria: neuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestako datuekin.

Jarduera horietan igarotako denboraren bilakaerari so egiten badiogu, ikus dezakegu, banaketa orekatu bateranzko joera dagoela, emakumeek denbora gutxiago eskaintzen baitiote etxeko lanei eta aldiz, gehiago ordaindutako lanari eta gizonek berriz, alderantziz (Rodríguez eta Ugidos, 2017: 178). Hala ere, oso argi ikusten da oraindik desberdintasuna nabarmena izaten jarraitzen duela (Gracia eta García, 2015; hemen aipatuta: Zubero, 2015). Besteak beste, laugarren grafikoan argi eta garbi ikusten da lan ordainduan eta formakuntzan, gizonek emakumeek baino denbora gehiago igarotzen dutela eta, aldiz, etxeko pertsonak zaindu eta etxeko lanei dagokienean, gizonek emakumeek baino denbora gutxiago.

Aldiz, jarduera bakoitzari eskaintako denborak aztertuta (emakume eta gizonek eskaintako denborak kontuan hartuta) esan dezakegu, 1993. urtean, 2013. urtean bezala, ordaindutako lan eta formakuntzari eskaini zitzaiola denbora gehien, ondoren etxeko lanei, eta gutxiena zaintza lanei. Hala ere, 2013. urteko denborak 1993. urtekoekin alderatuta, aipatu behar da ordaindutako lan eta formakuntzan eta etxeko lanetan igarotako denbora murriztu egin dela. Murrizketa hau eragin duten arrazoiak asko izan daitezke (krisi ekonomikoa, faktore teknologikoak, besteak beste, etxeko lanak errazten dituzten etxe-tresnak, etb.), baina horiek ez ditugu lan honetan aztertuko. Aldiz, aipatu behar da, zaintzan igarotako denbora igo egin dela. Hori dela eta, agerian geratzen da etxeko zaintzen zama igo egin dela.

Atalarekin amaitzeko, ondo legoke aisialdiari ere aipamen bat egitea. Lehenik eta behin argitzea komeni da aisiaren barne daudela alde batetik, aisia aktiboa eta kirola eta bestetik, aisia pasiboa eta zaletasunak. Lehenengoa, aisiarako denboraz gozatzeko jarduerak dira. Adibidez, jarduera fisikoa, kirol-joko eta ekoizpena dakarten kanpoko ibilaldiak (ehiza eta arrantza) lotutako jarduerak eta ordenagailua edo Internet erabiltzen duten aisiako jarduerak. Bigarrenari dagokionean berriz, aisiako denbora erabiltzearekin lotutako jarduerak dira, hala nola: liburuak edo aldizkariak irakurtzea, irudiak ikustea, irratia edo musika entzutea, komunikabideekin lotutako jarduerak, museoak bisitatzea, etab. (Ispizua eta Campelo, 2015:291). Hauei



dagokienean, esan behar da bai aisia aktiboa eta kirolean eta bai aisia pasiboan, 2013. urtean, emakumeek 1 ordu eta 11 minutu eta 2 ordu eta 52 minutu igaro zituztela hurrenez hurren. Gizonek ordea, 1 ordu eta 47 minutu eta 3 ordu eta 5 minutu, hurrenez hurren. Beraz, esan daiteke gizonek denbora gehiago igarotzen dutela aisiarekin loturiko jardueretan emakumeek baino.


1993. urteko datuekin alderatuta ikus daiteke, aisia aktibo eta kirolei dagokienean, gizonek 2013. urtean 25 minutu gehiago eskaintzen dietela egunean eta emakumeek berriz, 13 minutu gehiago. Aldiz, aisia pasibora jotzen badugu, gizonek 17 minutu gutxiago igarotzen dute jarduera horietan 1993. urtean baino eta emakumeek ordea, 3 minutu gehiago.

## **4.2 ZAINITZA**

Segidan etxeko pertsonen zaintzan 1993tik 2013ra emandako denboran zentratuko naiz. Zehazki, gizon eta emakumeek, etxeko pertsonak zaintzeko jardueretan igarotako denboran, horrela, sexuaren araberako aldeak erakutsiz, gizartean emandako bataz besteko denboran (orduak:minutuak).

Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuen arabera banatutako datuak aztertuta, ikus dezakegu emakumeak direla nagusiki zeregin hauek egiten dituztenak. Bataz besteko denbora sozialera jotzen badugu, 2. taulan ikus dezakegun moduan, emakumeek denbora gehiago igarotzen dute zeregin horietan gizonek baino. Gainera sexuaren araberako aldeak esanguratsuak dira edozein momentutan. Zehazki, emakumeek egunean 11-16 minutu gehiago ematen dituzte jarduera hori burutzen gizonek baino. Bestetik, aipatzekoa da, lan ordainduan eta etxeko lanetan igarotako bataz besteko denbora soziala azken bi hamarkadetan murriztu den bezala, zaintza lanei eskainitako denbora igo egin dela, hau da, etxeko zaintzen zama igo egin dela.

**5. GRAFIKOA: BATAZ BESTEKO DENBORA SOZIALAREN BILAKAERA (ORDUAK: MINUTUAK) ETXEKO PERTSONEN ZAINZAN, LAN-JARDUERAREKIKO HARREMANAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSTAT AE 1993-2013**



Iturria: Bianchi eta González, 2015: 168

Bosgarren grafikora jotzen badugu, bertan zaintzan emandako denbora adierazten da, lan-jarduerarekiko harremanaren eta sexuaren arabera. Grafikoa begiratuta, garbi ikusten da enplegua duten eta langabeak diren emakume eta gizonen datuak aztertuta, emakume eta gizonen artean alde handiak daudela, emakumeek askoz ere denbora gehiago eskaintzen baitiote zaintza lanei, nahiz eta gizon eta emakumeak egoera berdinean egon. Grafikoan ez du zehatz mehatz adierazten zein den egoera bakoitzean emakume eta gizonen etxeke pertsonen zaintzan igarotzen duten denbora baina, gutxi gora-beherako bat eman daiteke: 2013. urtean, enplegua duten emakumeek gutxi gora-behera 40 minutu eskaintzen diete eta gizonen berriz 24 minutu inguruan; Langabeen kasuan, berriz, emakumeek 1 ordu eta 3 minutu eskaintzen dieten bitartean, gizonen 17 minutu eskaintzen diete, gutxi gora-behera. Aldiz, erretiratuen eta ikasleen artean begiratzen badugu, diferentziak oso oso txikiak dira, ia emakume eta gizonen denbora berdina eskaintzen baitiote.

Bilakaerari so egiten badiogu, berriz, ikus dezakegu, enplegua duten pertsonen artean zaintzan ematen duten batzuetan besteko denbora soziala igo egin dela, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Enplegua duten gizonen jardueraren horietan daukaten inplikazioa handitu egin da, beste testuinguru batzuetan bezalaxe, nahiz eta inplikazio hori emakumeen kasuan baino nabarmen baxuagoa izan den (Bianchi eta González, 2015: 167).

Biztanleria langabearen artean 2003an inflexio puntu bat ageri da. Haren aurretik zaintzan emandako batzuetan besteko denbora soziala igo egin zen eta 2003an murrizketa nabarmena egon zen, gero 2008an berriz ere igotzeko, nabarmen, eta 2013an apur bat jaisteko. Azken urtean, zaintza jardueretan emandako batzuetan besteko denbora soziala apur bat jaitsi den arren, denbora

hori, edonola ere, krisi ekonomikoaren aurreko garaian zegoena baino altuagoa da (Bianchi eta González, 2015: 167).

Erretiratuen artean, berriz, zaintza lanak apurka-apurka igotzen doazela ikus dezakegu. Horrek, adineko pertsonak zaintza lanetan hasi direla adierazten duelarik. Etxeko lanez arduratzen diren emakumeen taldeari<sup>4</sup> dagokionean, berriz, jaitsiera bat ageri da 1998. urtean eta egonkor dirau 2013ra arte. Une horretan, zaintzan emandako batz besteko denbora soziala, berriz ere gora doa, duela 20 urteko mailara arte.

Genero desberdintasunak berriaz aztertzen badira, aipagarriena da, enplegua duten emakumeek zaintzan ematen duten batz besteko denbora soziala altuagoa dela, gizon enplegatu, langabetuek edo erretiratuek batez beste igarotzen duten denbora baino.

Hala ere, enplegua duten emakume eta gizonen zaintza lanei eskainitako batz besteko denbora sozialari erreparatzen badiogu argi ikusten da emakumeek askoz ere denbora gehiago eskaintzen diotela gizonen baino. Beraz, nahiz eta EAE-n emakumeen okupazioa igo egin den, emakumeek etxe barruko pertsonen zaintzaren arduradun nagusi jarraitzen dutela nabarmena da. Izan ere, emakumeen artean lan ordainduan emandako denbora igo egin den arren, zaintza jardueretan emandako denboran ez da haren pareko jaitsierarik egon. Aldiz, gizonezkoen biztanleriak ordaindutako lan-jardueretan ematen duen denbora nabarmen murriztu arren, ez da igoera proportzionala antzeman etxeko pertsonak zaintzeko lanetan. Beraz, esan daiteke, zaintza lanetan ematen den hazkunde erritmoa geldoagoa eta berantiarra da emakumeek lan merkatuan bizi dutena baino. Hori dela eta, gizonen aipatutako jardueretan duten inplikazioa faktore desberdinen arabera dela diote zenbait autorek: denbora erabilgarria, etxeko kide bakoitzaren aukera kostua eta haren negoziazio gaitasuna eta erreferentziazko gizarte-arauak (González eta Jurado, 2009; Ajenjo eta García, 2014; hemen aipatuta: Bianchi eta González, 2015).

Laburtuz, argi geratu da, nahiz eta gizonen artean zaintza lanetan aldaketa batzuk eman, nagusiki emakumea dela aztertutako denbora-tarte osoan zaintza lanez arduratzen dena, egoera bereko gizonekin alderatuta eta edozein lan-baldintza izanda (Bianchi eta González, 2015). Beraz, esan behar da, oraindik zaintza lanetan igarotzen den denboraren banaketan genero desberdintasunak irauten duela.

### **4.3 ETXEKO LANAK**


Segidan, etxeko lanen esparruan egunero burutzen diren jarduerak aztertuko ditut emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunak islatuz. Aipatu seigarren grafikoan, batz besteko denbora sozialaren ordeztarideko batz besteko denbora erabiltzen dela. Orain arteko datu guztiak batz besteko denbora sozialaren adierazlea erabiliz azalatu ditut, baina maila honetako jardueraren desagregazioa sexuaren arabera ematen duen informazioa soilik

---

<sup>4</sup> Gizonezko biztanleriaren kasuan ez da daturik ageri, kategoria horretan ez baitago gizonen laginketa nahikorik.

partaideko batz besteko denboraren adierazlearekin dago, beraz, datu hauek adierazteko bide bakarra adierazle hori erabiltzea da. Kontuan izanda, adierazle hau erabiliz datu handiagoak ateratzen direla batz besteko denbora sozialarekin baino.

**6. GRAFIKOA: PARTAIDE BAKOITZAK ETXEKO LANETARA BIDERATZEN DUEN BATZ BESTEKO DENBORA, GIZONAK ETA EMAKUMEA BEREIZITA ETA JARDUERA ZEHATZ BATZUK AZTERTUTA (OO:MM), EUSKAL AE, 2013**



Iturria: Legarreta eta García, 2015: 127

Seigarren grafikoari erreparatzen badiogu, ikus daiteke zein den etxeko lanen barruan dauden jarduerak jakin batzuk egiteko egunero hartzen den denbora generoaren arabera. Bertan agertzen diren datuei erreparatzen badiegu emakume eta gizonen igarotako denborak desberdinak direla ikus daiteke. Grafikoan zazpi jarduerak agertzen dira eta jarduerak guztiei, kudeaketa eta erdi-aisiei dagokionean izan ezik, emakumeek eguneko askoz ere denbora gehiago eskaintzen diete, jarduerak horiek etxean ohikoak eta errutina barrukoak diren lanak direlarik.

Beraz, etxe barruan egiten diren ohiko zereginetan emakumeek denbora gehiago igarotzen dute gizonen baino. Zehazki, 2013. urtean emakumeek gizonen baino ordu erdi gehiago igarotzen dute janariak prestatzen eta garbiketa eta arropak txukuntzeari dagokionean, hogeita minutu gehiago. Etxetik kanpo burutzen diren eginbeharretan, ordea, gizon eta emakumeek igarotzen duten denbora nahiko antzekoak dira, zenbaitetan gizonen denbora gehiago igarotzen dutelarik. Besteak beste, erosketak egiten emakumeek gizonen baino 6 minutu gehiago igarotzen dute eta beste zereginetan 4 minutu gutxiago. Aldiz, kudeaketan gizonen denbora gehiago igarotzen dute, zehazki 6 minutu gehiago. Erdi-aisiarekin lotuta dauden zereginen dagokionean, komeni da azaltzea jarduerak mota hauek ez direla maiz egiten, baina egiten dituzten artean, gizonen emakumeek baino denbora gehiago ematen dutela (Legarreta eta García, 2015).

Hori dela eta, etxeko lanetan emakumeek eta gizonen eskaintako denboran dagoen diferentzia ez da desberdintasun-adierazle bakarra; gizon eta emakumeek egiten dituzten zereginen artean ere alde handiak daude. Emakumeek, oro har, etxe barrukoak eta diskrezionalitate txikiagoa

duten lan gehiago egiten dituzte. Gizonek, aldiz, etxetik kanpo lan gehiago egiten dute, horren mugatuak ez diren ordutegi batean egin daitezkeenak. Izan ere, etxeko lanek denbora eta espazioari dagokienean baldintza oso zorrotzak izaten jarraitzen dute eta ezin dira erraz programatu, lan-eskaeren arabera. Hori dela eta, beren ordaindutako lanean inpaktu handia izan dezakete, lan horrekin koordinazio estua galdatzen delarik eta ordaindutako lanaren eskariak altuak badira, ordezkatzeari behar dute. Laburtuz, etxeko lanen zurruntasunaren ondorioz, lan horien burutzeak askotan, emakumeen lan-jardueran gatazka sortzen ditu. Ondorioz, etxeko lanaren berdintasunezko birbanaketak, ez du bakarrik gizonen parte-hartzearen gorakada nabarmena galdatzen, baita ere, emakumeek eta gizonak egiten dituzten zeregin motetan parekatze handiagoa (Rodríguez eta Ugidos, 2017: 182-183).

Laburtuz, ikus dezakegu, etxeko lanaren demokratizazioa ez dela zeregin guztietan gertatzen. Izan ere, oraindik, etxean egiten diren eta etxe-barrukoak diren zeregin gehienak emakumeek egiten dituztelarik (Durán, 1987).

#### **4.4 EMAKUME ETA GIZONEN LAN EKARPENA, BIZITZAREN SOSTENGU**

Bigarrenengo taulak erakusten dituen datuak aztertuta, garbi ikus daiteke emakumeek lan ordainduan igarotako denbora eta etxeko lanetan igarotakoa oso antzekoak direla, 3 ordu inguru erabiltzen baitituzte bi jarduera hauek egiten. Egia da, hasiera batean ordaindutako lanean igarotako ordu kopurua entzuteak harridura sortzen duela, ikusita egun, lanaldiak orokorrean 8 ordukoak direla. Baina, lan ordaindua aste osoko erritmoa izateagatik ezaugarritzen da, nahiz eta gehienek asteburuan ez jardun ordaindutako lanean. Horrez gain, biztanle guztiek ere ez dute jarduten okupazio horretan. Kontuan izan behar da, EAEn bizi diren pertsona guztiek ez dutela lan-merkatuan parte hartzen eta ondorioz, EAEn biztanlerian ordaindutako lanak eguneroko bizimoduan duen pisua erlatiboa dela. Aldiz, zaintza eta etxeko lanak asteko egun guztietan burutzen dira eta gainera, eginbehar horiek ia biztanleria guztiek burutzen dituzte (10 pertsonetatik 8k) (Lagarreta eta Sagastizabal, 2018:27).

Ordaindutako eta etxeko-familiako lana gehitu ezker argi ikusten da aztertutako 20 urteetan emakumeek gizonak baino batz besterik ordu bete gehiago lan egiten dutela egunean. Beraz, astean gutxi gora-behera 7 ordu gehiago, hau da, eguneko lanaldi oso bat. Modu honetan, emakumeek gizarte bizirauteko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzu gehiagorik hornitzen dute gizonak baino. Hau da, bizitza batez ere emakumeek etxe barruan eta etxetik at burutzen dituzten lanek sostengatzen du. Horren kontra, hauek aisialdirako, bizi sozialerako eta bidaietarako denbora gutxiago dute. Ondorioz, murriztu egiten da emakumeen jardun fisiko eta emozionalaren gaitasuna.

Gainera, esandakoarekin ondorioztatu dezakegu, gizartearen beharrak asetzeko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak merkatutik eta etxetik datozela ia proportzio berean (Lagarreta eta Sagastizabal, 2018:27). Hori dela eta, lan produktibotzat hartu beharko litzateke gure bizitza eusten laguntzen duen lan oro, horien artean ordaintzen ez diren etxeko lanak eta zaintza lanak, (Larrañaga, 2015).


Garrantzitsua da azpimarratzea, euskal gizartearen ongizatea eta aberastasun maila mantentzeko beharrezkoa den lan karga osoa emakume eta gizonen artean banatzen dela, gutxi gora-behera modu proportzionalan, emakumeen parte-hartzea zertxobait handiagoa delarik. 2013. urtean emakumeek %53,8ko ekarpena egin zuten eta gizonek %46,2koa. Hala ere, itxurazko proportzionaltasun honek emakume eta gizonen artean duala eta asimetrikoa den lanaren banaketak ezkututzen du. Izan ere, emakumeek zama osora aportatzen duten lanetatik %38,8 soilik da ordaindutakoa eta gainerako %62,4 ordaindugabeko lanak dira. Aldiz, gizonen artean, beraien kontribuzio osoaren %37,6 da ordaindugabeko lanen ehunekoa, eta ordaindua %62,4 (Rodríguez eta Ugidos, 2017: 177).

Beraz, esan daiteke orokorrean, emakumeek gizonek baino denbora gehiago eskaintzen dietela lanari, argi erakutsiz lanean gizon eta emakumeen inplikazioa ez dela berdina. Emakumeek etxeko lanetan denbora gehiago inbertitzen dute eta aldiz, gizonek lan produktibo eta merkatuan denbora gehiago igarotzen dute. Banaketa hau, 1993 eta 2013 urte bitartean mantentzen da, nahiz eta jarduera horietan igarotako denboran aldaketak eman. Hau da, generoen arteko desberdintasunak hor jarraitzen du. Baina azpimarratzekoa da lan merkatuari eskainitako denborarekin lotuta desberdintasun hori gehiago murriztu dela, zaintza eta etxeko lanaren artean dagoen desberdintasuna baino (Lagarreta eta Sagastizabal, 2018:27).

Emakumeek lan-merkatuan parte-hartzea faktore erabakaria izan da etxeko lanetan igarotako denboraren murrizketan (baina ez da faktore bakarra izan, besteak beste, faktore teknologikoak ere eragin dutelarik). Emakumeek lan-merkatuan izandako parte-hartze masiboaren ondorioz, etxeko lanen dedikazioa murrizteak eta azken eginbehar horietan pixkanakako gizonen parte-hartzeak, hasiera batean gizon eta emakumeen artean lan eta denboran berdintasunezko banaketarako baldintzak sortzen dituela pentsa badaiteke ere, ikusi dugu aldaketaren joerak ez direla linealak eta ezta ere proportzionalak. Aldaketak, emakumeen eskutik datoz, gizonek etxeko lanetan duten parte-hartzean ez baita oinarritzko aldaketarik eman. Hau da, emakumeak izan dira, gizonen lan-jarduera mailara hurbildu direnak progresiboki, gizonetan desplazamendu baliokiderik eman ez delarik etxeko lanei dagokienean. Desadostasun hori gaur egun, gizon eta emakumeen artean desberdintasunak sortzen dituen oinarritzko baldintzetako bat da.

Beraz, esan behar da gizon eta emakumeen arteko diferentzia argien ikusten den eremua etxea dela, emakumeak baitira zaintza informalaren hornitzaile nagusiak eta ohiko etxeko lanen zama handiena jasaten dituztenak (garbitu, lisatu, sukaldatu, etb.) (Rodríguez eta Ugidos, 2017:183-185). Adierazgarria da ordea, eremu honetan emakumeek eskainitako denboraren beherakada askoz ere handiagoa izan dela, gizonek egin behar hauetan igarotako denboraren gorakada baino (Lagarreta eta Sagastizabal, 2018:28). Aipatutakoa hurrengo grafikoan oso ondo ikusten da:

## 7. GRAFIKOA: LAN ZAMAREN BANAKETAN EMANDAKO GARAPENA EMAKUME ETA GIZONETAN, BATAZ BESTEKO DENBORA SOZIALA KONTUAN HARTUTA



Iturria: neuk eginia Eustaten datuak kontuan hartuta (1993-2013).

Grafiko hau ikusita argi ikusten da, 2013an ordaindutako lanean eta ordaindu gabekoetan emakumeek eta gizonak egunean igarotako denbora zein den: ordaindutako lanean emakumeek 1 ordu eta 50 minutu igarotzen dituzte eta gizonak berriz, 2 ordu eta 44 minutu (denbora hauek 2. taulan agertzen direnak baino txikiagoak dira, aipatutako taulan, ordaindutako lanaz gain formakuntzan igarotako denbora ere kontuan hartzen baita). Ordaindu gabeko lanari dagokionean (etxeko lan eta zaintzan igarotako denbora kontuan hartuta), emakumeek 3 ordu eta 44 minutu igarotzen dituzte eta gizonak, 1 ordu eta 58 minutu. Beraz, ordainsari baten truke egindako lana eta ordaindu gabeko lanak batera kontuan hartu ezker, grafikoan oso ondo ikus daitekeen moduan, emakumeen eguneko lanaldia handiagoa da gizonena baino. Hori dela eta EA Eren egoera mundu mailan dagoenaren antzekoa dela esan daiteke (aurreko atalean ikusi den moduan).

Lan-eremuan ematen diren gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzea eragiten duten arrazoiak desberdinak dira. Baina zalantzarik gabe, hura ulertzeko gakoetako bat lan munduan emakumeen desabantailazko (kaltegarria) txertatzea da, zaintza eta etxeko lanei dagokionean erantzunkizun eta arduraren banaketa desberdinaren ondorioz. Izan ere, azken arrazoi honek beti baldintzatu izan du emakumeek lan munduan duten parte-hartzea.

Etxeko lanaren banaketan ematen diren desberdintasunak eta lan munduan ematen diren desberdintasunak elkarren artean elikatzen diren bi prozesu dira: familia eremuko lanean ematen den banaketa desorekatuak erabat mugatzen du emakumeen parte-hartzea lan munduan. Horrekin batera, emakumeak bigarren mailako eta prekarioak diren eremuetan kontzentratzeak familiaren barruan duen posizioa ahultzen laguntzen du (Rodríguez eta Ugidos, 2017: 166-167).

## **5. ERANTZUKIDETASUNAREN BILA: HAURRAREN ZAINZARA BIDERATUTAKO BAIMENAK**

Ordaindu gabeko zaintza lanen aintzatespen, murrizketa eta emakume eta gizonen arteko birbanaketaren bidez, ordaindu gabeko zaintza lanetan gizon eta emakumeen artean ematen diren desberdintasunei aurre egin ezean, ezin da lan indarrari dagokionean genero berdintasunean benetako aurrerapenik lortu.

Zaintza politikak diru, zerbitzu eta denbora gisa ordaindu gabeko zaintza lanak aintzatetsi, murriztu eta birbanatzeko baliabideak esleitzen dituzten politika publikoak dira. Politika hauek zaintza-zerbitzu zuzenak barneratzen dituzte, bai haurrenak eta baita pertsona helduenak eta horrez gain, zaintzarekin loturik erantzunkizun familiar edo zaintza erantzunkizunak dituzten langile, ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaile edo zaintza behar duten pertsonen zuzenduriko babes sozialen prestazio eta transferentziak. Gainera, baimen eta ordaindutako lana, ordaindu gabeko zaintza lanarekin hobeto kontziliatzea onartzen duten eta familiarentzat mesedegarriak diren beste lan modalitateei buruzko lan-arauak ere barneratzen dituzte politika horiek (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Politika hauek transformatzaileak dira ordainsaririk jasotzen ez duten zaintzaileen eta zaintzen onuradunen giza-eskubideak, autonomia eta ongizatea bermatzen dituztenean. Zaintza politika transformatzaileek ekonomia, osasun eta genero berdintasunean emaitza positibikoak eman ditzakete. Horrez gain, haurrentzat, beren amen enpleguentzat eta aiten, ezgaitasunak dituzten pertsonen zein pertsona helduen zaintzan emaitza hobekoak izatera gidatzen dituzte (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).

Guztien interes gorenarekin bat dator zaintzetan baldintza onak bermatzea. Politika transformatzaileak eta zaintza lan duinak oinarritzeko dira justizia sozialean oinarritzen den eta genero berdintasuna sustatzen duen etorkizuneko lana bermatzeko. Baina bere aplikazioak zaintzaren ekonomian inbertsioa bikoiztea galdatuko du nazioarte mailan, hemendik 2030ra guztira 475 milioi enplegu izatera gidatuz, hau da, 269 milioi enplegu gehiago. Izan ere, hemendik 2030ra zaintzaren onuradunak 2.300 milioira igotzea aurreikusten da mundo mailan, 100 milioi pertsona heldu gehiago eta eta 6-14 urte bitarteko 100 milioi haur gehiago (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).


Zaintzaren behar gehigarri hauei zaintza politika egoki baten bidez ekin ezean, seguroenik lanaren indarrean emakumeen parte-hartzea mugatzen jarraituko dute, emakumeei zama gehigarri bat inposatuz eta lanean genero desberdintasuna oraindik eta gehiago nabarmenduz (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018).



## NAZIOARTEAN ZAINZA LANEN POLITIKAK DUTEN GARRANTZIA ENPLEGU-TASAN

Nazioartean, zaintza politikan egiten diren gastu publikoei buruzko datuei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu, lanean aritzeko adina duten biztanleriaren zaintza kontingentzia (amatasun, gaixotasun edo ezgaitasun kontingentzia) konpentsatzeko zaintza politikan gehiago inbertitzen duten herrialdeetan ordaindu gabeko zaintza lanetan aritzen diren 18-54 urte bitarteko emakumeek enplegu-tasa altuagoak dituztela, gutxiago inbertitzen duten herrialdeekin alderatuta (ikusi 8. grafikoa). Zehazki, amatasun babes zabal eta zaintza-zerbitzuekin batera, ordaindutako aitatasun baimena existitzen den herrialdeetan amen batuz besteko enplegu-tasa altuagoak izan ohi dira (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:10). Ikusi hurrengo grafiko hau:

### **8. GRAFIKOA: ZAINZA-POLITIKAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOA ETA ZAINZA-ARDURAK DITUZTEN EMAKUMEEN ENPLEGU-TASAREN PORTZENTAIA, AZKEN URTEAN**



Iturria: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:11

## EUSKAL GIZARTEAREN ANALISIA

Zenbait hamarkadetan lan-merkatuan izandako emakumeen presentziaren igoerak ez du bere egituran aldaketa adierazgarririk izan eta nahiz eta emakumeen lan egoeran aurrerapen ukaezinak egon azken hamarkadetan, lan-merkatuak genero joera indartsua izaten jarraitzen du.

Emakumeak lan-merkatuko segmentu espezifikora desbideratu izan ohi dira, zehazki ordaindutako lana familia erantzunkizunarekin kontziliatzea onartzen duten lanaldi partzialeko enpleguetara (Rodríguez eta Ugidos, 2017:184). Aipatzekoa da, EAEn, nahiz eta lanaldi partzian lan egiten duten emakume eta gizonen portzentaia modu esanguratsuan igo 2008tik 2015ra, emakumeen portzentaia askoz ere handiagoa dela gizonena baino, zehazki emakumeena 5,5 puntu igo ostean %31,1 ean kokatu da eta gizonetan 3,1 puntu igota lanaldi partzian lan egiten dutenak %7,1 dira (Larrañaga, 2017:224). Hori, lan-merkatuaren funtzionamenduak sexuaren arabera baztertu eta bereizten dituenaren erakusgarri da, emakume eta gizonen artean familia-zamen banaketa desberdinen ondorioz, emakume eta gizonek duten disonibilitate desberdinak sortuta.

Azken hamarkadetan emakumeak lan munduan sartzeak ez du ekarri berarekin zaintza lanen bazterketa, eta horrek antolatzeke era eta erantzunkizunen banaketan tentsioak sortu ditu. Gainera, zaintzaren beharrak estaltzeko zerbitzu sozialen eskasiaz gain, estatuak hartzen duen papela subsidiarioa da. Soilik premiazko kasuetan edo familia nukleoan baliabide ekonomikoen gabezia egiaztatzen denean parte hartzen du.

Emakumeek diskriminazio bikoitza pairatzen dute. Esklusiboki etxeko lan eta bere familiaren zaintzara dedikatzen bada, soilik familiaren barnean erantzunkizun ekonomikoa duenarekin duen harremanetik eratorriko zaizkio eskubide sozialak, normalean pertsona hori bere gizona izaten delarik. Aldiz, lan munduan jarduten badute, gehienetan familiaren zaintza izaten jarraitzen dute, horrek ordaindutako lanean erabateko parte hartzea izatea oztopatzen duelarik. Izan ere, aurrez aipatu moduan, gizonekin alderatuta, askoz ere emakume gehiago dira denbora partzialeko enpleguak dituztenak edo zaintza lanak areagotzean denbora baterako edo behin betiko enplegua alde batera uzten dutenak edo beharrezkoa den denboran ordaindutako lanean bere partehartze maila murrizten dutenak. Kasu guztietan, zaintza beraien gain hartzeak ondorio negatiboak dakartza, bai beraien diru sarreretan eta baita beraien iraganeko eskubide sozialen aitorpenean (jubilazioa, amatasuna, ezgaitasuna,...) (Martínez, 2017:261).

Gainera, ongizate estatuaren ohiko azterketek ez dute aintzat hartzen nagusiki emakumeek beren etxeetan egiten dituzten zaintza-lanak. Aitzitik, ongizate-estatu ikuspegi feministatik aztertzean, lanaren gizarte-antolaketa oinarritzat hartzen da, eta lehen planoan, emakumeek eta gizonek ordaindutako lanaren eta ordaindu gabeko lanaren gainean duten erantzunkizuna ezartzen da. Banaketa orekatuagoa edo ez horren orekatua izango da ongizate-erakunde bakoitzak pertsonen zaintzaren eta bizi-kalitatearen arloan duen erantzunkidetasun mailaren arabera (Martínez, 2017:272).

Haurren zaintza, orokorrean bikoteak elkarbizitzaren lehen urteetan hartzen duen erabaki garrantzitsu bat da. Castroren arabera, elkarbizitzaren lehen urte horiek erabakigarriak dira berdintasunean oinarritzen den jarrera bat ezartzeko. Izan ere, zaintza hauen banaketak garrantzitsuak dira beste eremu guztietan sexuan oinarritutako lanetan bidezkoagoa den banaketa ezartzeko. Horrela, garaia egokitzen denean gizonek barneratuta izango dute, gurasoen edo beren seme-alaben zaintzan parte hartzeko beharra. Horrela dio Castrok: *El nacimiento es un momento clave para establecer los roles de género en la pareja, es clave el*

*cuidado de los hijos/as para entender la desigualdad de género dentro de las familias y sus consecuencias sobre el mercado laboral* (Castro, 2016:327; hemen aipatuta: Martínez, 2017:264).

Esan behar da garrantzitsua dela haurarentzat bi gurasoek zainduta egotea berdintasunean, kontuan hartuta ondorengo hau: *el bienestar presente y futuro de las niñas depende de la posibilidad de vivir en una sociedad más igualitaria y más justa* (Del Moral y Gálvez, 2016:268). Aldiz, horrelako zaintzetarako ezarri diren neurri gehienek, zaintzaren zama emakumeei esleitzen diete, generoaren joera gehiago sakonduz.

## HAURRAK ZAINZKEKO POLITIKAK EAE-N

Azpitarratzekoa da euskal erakundeek zerbitzu publikoen hornidura zabaltzeko egin duten esfortzua, zaintzak eragindako gabezia arintzeko emakumeen lan-jardueraren gorakadak eta herritarren zaharkitzearen ondorioz (Martínez, 2017:264).

Garrantzitsua da haurren zaintzari dagokionean, emakume eta gizonek eskuragarri dituzten bitartekoak aztertzea seme-alabak izatea erabakitzen dutenean, guraso eginbeharrez gain, beraien lanbideko zereginak egiten jarraitzen dutenean. Tresnarik funtsezkoenak, baimenak, lan-eszedentziak eta lanaldi murrizketak dira.

Hauek, nahiz eta Gizarte Segurantzak kudeatu modu zentralizatuan, zaintza arazoietan oinarritutako eszedentzi eta lanaldi murrizketei dagokienean, kasu zehatzetan, Autonomia Erkidegoak posible du neurri horien erabilera konpentsatzen duen diru-laguntzaren bat barneratzea. EAEn, kontziliazio neurriak deitzen diren horien barnean konpentsazio ekonomikoak barneratu dira eszedentzia eta ordu-murrizketen ondoriozko diru-sarreraren galera ordeztzeko, betiere, zainketa arrazoiengatik bada (Martínez, 2017:265).

Bi gurasoek eskura dituzten guraso baimenak, zaintza banatzeko modurik bidezkoenak dira. Haurren zaintza eta arreta hobekien banatzen dituen ordaindutako prestazioak dira, betiere horretarako prestatuta badaude (Martínez, 2017:268).

Gure herrialdean gurasoentzat ordaindutako baimenik ez egoteak zainketa lanak bere gain hartu ahal izateko lan eszedentziak eta lanaldiaren murrizketak tresnarik erabilenak izatea eragin du, nahiz eta soldata-kompentsaziorik ez egon. Neurri hauek ordaindutako lana duten gurasoek erabili ditzakete, bai amek eta baita aitek, izan ere, modu indibidual eta besterenezinean errekonozitutako lan-eskubidea da, adin-txikiek adin jakin bat bete arte erabili dezaketeelarik (Martínez, 2017:269).

EAEk harmarkada bat baino gehiago darama bai lan-eszedentziak eta bai lan-ordutegiaren murrizketak ekonomikoki saritzen, bi gurasoek, aitek zein amek, beren seme-alaben edo mendekoa den familiarren zaintza erantzunkizuna hartzeko helburuz. Eusko jaurlaritzak ezarritako baimen mota hauek duten lan-izaera nabarmendu behar da, hau da, momentu horretan enplegu bat izan eta Gizarte Segurantzari alta emanda dauden pertsona orok erabili

ditzakke baimen hauek, eta ez beste baimen batzuk bezela, biztanleriaren talde-zehatz batzuek soilik. Gainera, neurri hauen erabilera malgua ere nabarmentzekoa da, bi gurasoek modu txandakatuan erabili baitezakete (baina inoiz ezin dute bi gurasoek batera erabili) denbora-tarte laburretan, eta nahi adina aldiz berrekin, erabilera-maila maximoekin, eszedentzia osoa pertsona bakarrak bere gain hartu ez dezan (Martínez, 2017:269). Hurrengo taulan berriz, zaintzarako erabili diren eszedentzia kopuruari buruzko datuak azaltzen dira, zaintza mota eta sexuaren arabera bereiztuta:

### 3. TAULA: SEXUAREN ETA ZAINZTA MOTAREN ARABERA ESZEDENTZIA KOPURUA EAE-N, 2017 URTEAN

2017. URTEA	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak
<b>Seme-alabak zaintzeko eszedentziak</b>	4702	4355	347
<b>Familiartekoak zaintzeko eszedentziak</b>	580	476	104
<b>GUZTIRA</b>	5282	4831	451

Iturria: neuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioko Estatistiketatik hartutako datuekin.

Hirugarren taulan ikus daitekeen moduan, seme-alaben zaintzara bideratutako neurri politikoak dira gehien erabiltzen direnak, familiarren zaintzetarako erabiltzen direnekin alderatuta. Guztira, 2017. urtean, 4.702 eszedentzia erabili dira seme-alabak zaintzeko eta familiartekoak zaintzeko, 580. Gainera, nagusiki emakumeak dira neurri horiek erabiltzen dituztenak, gizonak, oso gutxi erabiltzen dituztelarik. Zehazki, 2017. urtean seme-alaben zaintzarako eszedentziei dagokienean, emakumeek erabilitako eszedentzia kopurua 4.355 da eta gizonak erabilitako kopurua berriz, 347. Aldiz, familiartekoak zaintzeko emakumeek hartutako eszedentzia kopurua, 476 da eta gizonena berriz, 104.

Beraz, esan behar da, 2017an zaintzan oinarrituta emandako eszedentzia guztien %89a adin-txikikoak zaintzeko izan dela, horietatik emakumeak izan direlarik nagusiki zaintza mota hauek bere gain hartu dituztenak (%93). Gainerako baimenak, hau da %11, familiartekoak zaintzeko eskatu dira, azken hauetan gizonen parte-hartzea handiagoa delarik (familiarrek zaintzeko eskatutako eszedentzi guztien %18a gizonak eskatu dute). Beraz, datu hauek ikusita esan daiteke, gizonaek familiako gainerako kideen zainketan gehiago konprometituta daudela, beren seme-alaben zaintzan baino.

Puntu honetara iritsita, garrantzitsua da aipatzea, zaintza arrazoietan oinarritutako eszedentzien edo lanaldiaren murrizketen aitortpenak ez dakarrela automatikoki ordainketa ekonomikorik. Izan ere, diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzak helburu horretarako urtero esleitzen duen aurrekontuaren arabera ematen dira, dagozkion partidak agortu arte ematen direlarik laguntza horiek. Horrela, urte batean ordaindu gabe geratzen diren eskaerak hurrengo ekitaldiko aurrekontura joango dira. Beraz, kontziliazio arrazoietan oinarritutako eskaera guztiak estaltzeko aurrekontu faltaren ondorioz, ez da oso fidagarria emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren datua, izan ere, posible da zaintzaren benetako beharrak ez islatzea (Martínez, 2017:270).

Euskal Herrian kontziliazio-tresna horiek gutxi erabiltzearen arrazoietakoa bat da ez direla behar bezain eskuzabalak, neurri horiek hartzeak dakarren soldata-galera konpentsatzeko. Hau da, aitortzen den ordainsari ekonomikoak ez du konpentsatzen horrelako neurriak hartzeak dakarren errenta galerarekin (Martínez, 2017:270).

Azkenean, lan-bizia, bizi-familiarra eta -pertsonek bateratzeko euskal familia-planak dituen ezaugarri positibo guztiak desagertuko dira, neurri horiek hartzeak suposatzen duen soldata-galera eskuzabaltasunez konpentsatzen ez bada. Horrela, kontziliazio-neurriak gurasoetako nori hartuko duen erabakitzeko kontuan hartuko da guraso bakoitzaren soldata eta zein den familia unitatearentzat diru-sarreraren galera txikiena sortzen duena. Eta horri emakumeen eta gizonen artean lan-merkatuan dauden soldata-diferentziak gehitzen badizkiogu, erraz ikus daiteke guraso diren emakume eta gizonen artean neurri horien erabileran dagoen desoreka handia (Martínez, 2017:271).

Horrelako neurriek eragiten duten arazo nagusia da, gaizki planteatuta egoteak gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna areagotu dezakeela, hau da, lan-baldintza hobeei lan egiten dutenen eta prekarietate handiagoa dutenen artean. Neurri horiek, pizgarriak izan arren, are gehiago indartzen dute lanaren sexu-banaketa, eta soilik bi aldeek lan-baldintza berberak dituzten egoeretan eta etorkizunean lan-baldintza horiek kontserbatzeko itxaropen berberak dituzten egoeretan agertuko dira benetako kontziliazio neurri moduan (Martínez, 2017:271).

Bestetik, esan behar da, gurasoek beraien seme-alabak zaintzeko zenbait baimen (amatasun, aitatasun eta gurasoena) dituztela eskura. Emakumeentzat amatasun baimenak derrigorrezko izaera daukalarik, lehenengo 6 asteetan. Baina gainerako prestazioa, 10 asterarte, beste gurasoari transferitu diezaike. Aldiz, aitatasun baimena, borondatezkoa da eta transferituezina, amatasun baimenaren derrigorrezkoa den denbora aldiarekin bat egiten duelarik, izan ere, haurren erditzearen momentuan aktibatzen da (Martínez, 2017:272).

Hala ere, aipatu behar da arlo honi dagokionean, EAEn aldaketa etorri dela aurten, bikotea osatzen duten bi kideen guraso-baimena parekatzeko helburuz, "Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana" onartu ostean. Izan ere, Jaurlaritzak 2019tik aurrera, seme-alabaren bat duten bikotekideei (dagoeneko guraso direnei) umeak zaintzeko 12 asteko ordaindutako eszedentzia hartzeko aukera emango die. Guraso berriek, berriz, 2022ra arte itxaron beharko dute. Hori dela eta, bikotekideek guztira 16 aste izango dute haurrak zaintzeko, amek beste (Eitb, 2018).

Aurreneko lau asteak, Gizarte Segurantzak ordainduko ditu eta Eusko Jaurlaritzak erantsiko dituen beste 12 aste horiek ordainduko ditu, baina baldintza batzuk bete beharko dituzte: hasteko guraso-baimena haurrak lehen urtea bete baino lehen hartu beharko da eta baimenak ezingo dira aldi berean hartu, helburua jaioberriak zortzi hilabeterarte gurasoen zaintzapean egotea baita. Bigarrenik, enpresa pribatuan lan egiten duten bikotekideek eszedentzia moduan hartu beharko dute baimena. Hau da, 12 aste horietan soldata kobratuko dute (Jaurlaritzak ordainduta), baina ez dute Gizarte Segurantzaz kotizatuko. EAeko funtzionarioena, ordea, guraso-baimena izango da eta Euskal Administrazio Publikoetan lan egiten dutenen artean

automatikoki aplikatuko da (Eitb, 2018). Azken hauei dagokienean, aipatu behar da, Eusko Jaurlaritzak Euskal Enplegu Publikoaren lege proiektua onartu berri duela (2019ko urtarrilaren 29an). Lege proiektuak langile publikoentzat, bikote diren bi kideen guraso baimenak parekatzen ditu, sexu eta familia mota edozein delarik. Baimenaren iraupena esan bezala 16 astekoa izango da bikotea osatzen duten kide bakoitzarentzat, %100 ordainduta eta besterendu ezina. Hala ere esan behar da araudi berria oraindik Eusko Legebiltzarrak onartu behar duela (El Diario, 2019).

Aipatzekoa da, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan hau Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Itunean biltzen dela. Plan honen helburuetako bat, besteak beste, gurasoek denbora soziala modurik egokienean antola dadin sustatzea delarik (familien premien arabera) eta ardura partekaturako antolamendu soziala erraztea (Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako, 2018:10). Hau da, ahal den neurrian emakumea lan merkatutik ateratzea sahiestu nahi da, horren ondorioz, genero ezberdintasuna eta gizon-emakumeen arteko soldata arrakala areagotzen baita. Izan ere, planean bertan azaltzen den moduan, “egindako ebaluazioen arabera, lan-baimenek —aitatasun-baimenak izan ezik— emakumeen zaintza-rola mantentzen edo areagotzen dute, emakumeak izaten baitira epe nolabait luzeetarako lana uzten dutenak, eta, horrek, oro har, haien lan-karrera zigortzen du, baita enpleguari eusteko garaian ere. Diru-transferentziek ere ondorio negatiboak dituzte berdintasunaren gainean, amak animatzen baititu lana uztera, lanaldi partzialan lan egitera edo etxeko langile bat kontratatzerara” (Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako, 2018:32).

## **6. ONDORIOAK**

Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa da desberdintasun ekonomikoa ezabatzea. Zenbait hamarkadetan zehar pentsatu izan da desberdintasun horiek gainditzeko mekanismorik nagusia emakumeak lan munduan barneratzea dela, horrekin batera diru-sarrerara eta beren gaitasun eta ahalmenak garatzeko beste zenbait baliabide izatea lortuz, baina ikusi daitekeen moduan ez da nahikoa.

Emakumeek gaur egun lan-indarrean duten integrazioa aurrerapen esanguratsuen eskutik joan da: jarduera eta enplegu-tasa handiagoa, hezkuntza- eta formakuntza-maila hobetzea, zenbait jarduera edota enpleguan hauen presentzia hazkorra, etab. Hala ere, emakumeek enpleguan izandako sarbide masiboa lan-merkatua eraldatzea lortu ez duen prozesu osatugabea da. Lan-merkatuak oraindik emakumeen aurkako joera izaten jarraitzen duelarik, bere gaitasunak gutxietsiz eta segregazio-egoerak, mendekotasun eta desberdintasunak iraunaraziz.

Beraz, azken bi hamarkadetan aurrerapen handiak eman diren arren, desberdintasunaren patroia mantentzen da. Garapenerako Nazio Batuen Programak azpimarratzen duen moduan, lan-munduan emakumeek duten parte-hartze txikiagoa, etxeko lan eta zaintzaren erantzunkizunean banaketa ezberdina izatearen sintoma da, horrek emakumeen aukerak mugatzen dituelarik. Muga horiek gainditzeko neurriak bultzatu behar dira; alde batetik emakumeek lan-munduan

parte-hartze osoa eta bidezkoa izatea oztopatzen duten muga guztiak ezabatu eta bestetik, emakumeek ordaindu gabeko lanarekin lotuta jasandako gehiegizko zama aitortu, murriztu eta birbanatzen lagundu behar da (GNBP-a 2015:107).

Honekin lotuta esan behar da Denboraren Aurrekontuen Inkestak asko lagundu duela sexuaren araberrako lan banaketa desberdinak eta ezkutuko lanak ikustarazten. Laugarren atalean, plazaratu dira inkesta horretatik ateratako datuak eta argi ikusi da sexuan oinarritutako lan banaketak jarraitzen duela, denboran oinarrituta. Emakumeek ordaindu gabeko etxeko lan eta zaintza lanei gizonetzkoek baino denbora gehiago eskaintzen dietelarik. Besteak beste, azkeneko datuen arabera etxeko lanei emakumeek eskaintako denbora gizonen eskaintakoaren bikoitza da. Odaindutako lanei, berriz, gizonen emakumeek baino denbora gehiago eskaintzen diote, egunean ia ordu bete gehiago. Hala ere, esan behar da, bilakaerari so eginez, bi hamarkadetan zehar, emakumeek etxeko lanetan igarotako batz besteko denbora murriztu egin duela eta horrekin batera enpleguan denbora gehiago inbertitu eta gizonetzkoen dagokienean, zaintza eta etxeko lanei dagokienean eskaintako denbora handitu egin da eta ordaindutako lan eta formakuntzari dagokionean, berriz, murriztu. Hau esanda, aipatzeakoa da nahiz eta, banaketa orekatu bateranzko joera ikusi, oraindik desberdintasuna nabarmena izaten jarraitzen duela.

Gainera, sexuaren araberrako lan banaketa hau ez da bakarrik EAEn ematen, mundo mailan ere presente dago, ikusi dugun moduan. Hala ere, esan behar dut LNEk 2018. urtean egindako analisia oso interesgarria iruditu zaidala eta ondo egongo litzatekeela horrelako analisi bat egitea euskal lurraldeetan, horrela EAEko datuak mundo mailakoekin kontrastazeko, baina tamalez, ez dago nahikoa baliabiderik horrelako azteketa bat egiteko eta beraz ezinezkoa da, emaitza oso diferenteak izango baitgenituzke.

Aipatu behar da sexuaren araberrako lanaren banaketa arazo politiko garrantzitsua dela. Izan ere, bizitzaren sostengua biztanlaria osoari eragiten dion ekintza bat da eta ez emakumeek dohainik asumitu beharreko betebeharra. Bizitza sostengatzen duten lan hauek ikustaraztea eta aitortzea oinarri-oinarrizkoa den lana da, baina baita ere, lan hauen banaketa eta erantzukidetasuna galdatzea. Izan ere, nagusiki emakumeek burutzen dituzten lan hauek, errekonozimendu sozial handiagoa izango balute, emakume eta gizonen artean lan hauen banaketa askoz ere orekatuagoa izango litzateke. Aipatutako lan hauen banaketa ekitatiboa ekonomia desberdintasunak eteteko behar-beharrezkoa den baldintza delarik.

Familiaren egituran ematen ari diren aldaketen eta gizartearen zaharkitzearen ondorioz, emakume eta gizon askok aurre egin beharko diete ordaindu gabeko zaintza lan eta ordaindutako lanen arteko gatazka potentzialari. Ondorioz, genero-rolen berdintasunean babes gehiago aurreikusi beharko litzateke eta praktikan jarri. Jarrera eta praktika aldaketak seguruenik zaintza politika eraldatzailatzat defini daitezke. Neurri hauen eskuragarritasun eta kalitatea handitzen doan heinean, posible da amek enpleguarekiko duten jarrerak eta bizi profesional eta familiarraren kontziliazio egokiak emakume eta gizonen arteko ordaindutako lanaren eta ordaindu gabeko zaintza lanean berdintasunezko banaketari mesede egitea (Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2018:5).

Honekin lotuta, aipatu behar da lan ordaindua duten gurasoen eskura dauden aitatasun, amatasun eta ahaidetasun baimen eta lizentziak ezinbesteko tresnak direla zaintzaren erantzunkizuna banatzeko. Egun ditugun baimen eta lizentziek ordea, oraindik emakumeak zainketa eta ongizate hornitzaile gisa eta gizonak beren familiako kideen arduradun ekonomiko gisa esleitutako rol tradizionalak iraunarazten dituzte. Martínezekin bat etorritz, aipatu behar da, haurrak zaintzeko baimenen politikak, berdintasunerako benetako neurriak izatea nahi bada, aita eta amek modu berean erabiliz, ordaindu gabeko lanaz gain, lan ordainduaren banaketa hobea izatea bermatu behar dutela, horrekin batera emakume eta gizonen lan-baldintzak parekatuz (Martínez, 2017:273).

Euskal gizartean kasuan, aurrez baimenen zatian aipatu moduan, orekatuagoa den banaketa bat izatea onartzen duten ordaindutako guraso-baimenen existentzia ezak, lan-eszedentziak eta lanaldiaren murrizketak alternatiba gisa agertzea eragin du. EAEn Eusko Jaurlaritzak zenbait neurri ezarri ditu, kontziliazioari dagozkionak eta horien bidez, transferentzia ekonomikoak aurreikusten dira modalitate horietako bat hartzea erabakitzen dutenentzat, betiere adingabekoen edo haien mendeko senideen zaintzagatik bada. Nahiz eta, gurasoen artean ahalik eta erabilpen berdintsuena sustatzeko eta eszedentziak edo ordu-murrizketen pisua nagusiki emakumeengan ez erortzeko diseinatuta egon, eskainitako konpentsazio ekonomikoa ez da behar bezain eskuzabala. Gaizki ordaindutako baimenek ez die aitei pizgarririk ematen eta, ondorioz, emakumeek beren gain hartzen dute kontziliazioaren pisua, izan ere, gehienetan, familien barruko diru-sarreretan galera gutxien dakarren irtenbidea da.

Hala ere, txalotzekoa da Eusko Jaurlaritzak berdintasunerako eman berri duen pausoa. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plan"-a onartzearen ondorioz, 2019tik aurrera, guraso-baimenak parekatzen hasiko da.

Bukatzeko aipatu, ordaindutako zein ordaindu gabeko zaintza lanek, etorkizunean lan egoki bat izateko ezinbesteko garrantzia daukatela. Biztanleriaren hazkundeak, gizartearen zaharkitzeak, lan merkatuan emakumeek duten bigarren mailako posizioa eta politika sozialean dauden hutsuneak, gobernuak, langileak, sindikatuak eta herritarrek zaintza lanen antolaketari dagokionean premiazko neurriak hartzea eskatzen du. Gaur egun, zaintzaren zerbitzuan eta bere kalitatean dagoen gabeziari ez bazaio aurre egiten modu egoki batean, mundu mailan zaintzaren krisi larri eta eutsi ezinezkoa sortuko da eta lanean generoen arteko desberdintasuna handituko da (Lanaren Nazioarteko Erekuidea, 2018:1).



## 7. BIBLIOGRAFIA

Ajenjo, Marc eta García, Joan (2014): “Cambios en el uso del tiempo de las parejas ¿Estamos en el camino hacia una mayor igualdad?”. *Revista Internacional de Sociología (ris)*, 2, 72 bolumena, 453-476. orr.

Armendáriz, Eba (2018): “Presentación: Economía feminista: visibilizar lo invisible”. *Dossieres EsF: Economía feminista: visibilizar lo invisible*, 29.

Bianchi, Gisela Marisa eta González, Yolanda (2015): “Personak zaintzea familiar”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)

Carrasco, Cristina (2011): “La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes”. *Revista de Economía Crítica*, 11.

Carrasco, Cristina (2017): “La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción”. *Revista vasca de economía*, 91. Gasteiz.

Castro, Carmen (2016): *Modelos de bienestar, igualdad de género y permisos por nacimiento en un contexto de crisis del modelo social europeo*. Doktore tesia. Sevilla: Pablo de Olavide unibertsitatea; eskuragarri hemen: <https://rio.upo.es/xmlui/bitstream/handle/10433/2080/castro-garcia-tesis15.pdf?sequence=1&isAllowed=y> [kontsulta eguna: 2018/12/27].

Dalla Costa, Mariarosa eta James, Selma (1977): *El poder de la mujer y la subversión de la comunidad*. México: Siglo XXI, 22-65. orr.; eskuragarri hemen: <http://bibliotecafeminista.com/el-poder-de-la-mujer-y-la-subversion-de-la-comunidad/> [kontsulta eguna: 2018/11/26].

Del Moral, Lucia eta Gálvez Lina (2016): “Bienestar infantil, capacidades y sostenibilidad de la vida. Bases para el análisis de políticas de infancia desde la economía feminista”. Gálvez Muñoz: *La economía de los cuidados*. Sevilla: deculturas Ediciones.

Durán, María Ángeles (1987): *De puertas adentro*. Madril: Emakumearen Institutua.

Espino, Alma (2010): “Economía Feminista: enfoques y propuestas”. *Instituto de economía*; eskuragarri hemen: <http://www.obela.org/system/files/000004019.pdf> .

Euskal Herriko Bilgune Feminista (2016): “Euskal feminismoaren erronkak XXI. mendean. Sexu-generoaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen argazkirako gakoak”; eskuragarri hemen:

[http://bilgunefeminista.eus/eu/Artxibategia/Euskal feminismoaren erronkak XXI. mendean. Sexu-generoaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen argazkirako gakoak. Ekintzarako argazki konpartitua](http://bilgunefeminista.eus/eu/Artxibategia/Euskal_feminismoaren_erronkak_XXI_mendean_Sexu-generoaren_ikuspegitik_eman_diren_aldaketa_prozesuen_argazkirako_gakoak_Ekintzarako_argazki_konpartitua) [kontsulta eguna: 2018/10/26].

Gómez, Lucía (2018): “El libro recomendado: subversión feminista de la economía, aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida (Amaia Pérez Orozco)”. *Dossieres EsF: Economía feminista: visibilizar lo invisible*, 29.

González, María José eta Jurado, Teresa (2009): “¿Cuándo se implican los hombres en las tareas domésticas? Un análisis de la Encuesta de Empleo del Tiempo”. *Panorama Social*, 65-81. orr.; eskuragarri hemen: <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:FAC-CPYS-Articulos-0001/Documento.pdf>

Gracia, Pablo eta García, Joan (2015): “Genero y trabajo doméstico: ¿Tiende España a la igualdad?”; eskuragarri hemen: [https://www.eldiario.es/piedrasdepapel/Genero-domestico-Tiende-Espana-igualdad\\_6\\_345125504.html](https://www.eldiario.es/piedrasdepapel/Genero-domestico-Tiende-Espana-igualdad_6_345125504.html) [Kontsulta eguna: 2018/11/11].

Iradi, Josu (2015): “Aurkezpena”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)

Ispizua, Marian eta Campelo, Patricia (2015): “Aisia eta kirola”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)

Larrañaga, Mertxe (2015): “Lan-merkatua eta ordaindutako lanaren denbora”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)

Larrañaga, Mertxe (2017): “Desigualdades económicas de género en la Comunidad Autónoma del País Vasco”. *Revista vasca de economía*, 91. Gasteiz.

Larrañaga, Mertxe (2018): “Inclusión de los trabajos domésticos y de cuidados en el PIB: Cuentas Satélite”. *Dossieres EsF: Economía feminista: visibilizar lo invisible*, 29.

Legarreta, Matxalen eta García, Cristina (2015): “Familia eta etxeko lanen banaketa”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-Aurrekontuen Inkesta 1993-2013; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)*

Legarreta, Matxalen eta Sagastizabal, Marina (2018): “Haciendo visible el trabajo invisibilizado (que no invisible): las encuestas de usos de tiempo”. *Dossieres EsF: Economía feminista: visibilizar lo invisible*, 29.

Martínez, María José (2017): “El estado de bienestar y los permisos para el cuidado de la infancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco”. *Revista vasca de economía*, 91. Gasteiz.

Pazos, María (2018): *Contra el patriarcado. Economía feminista para una sociedad justa y sostenible*. Iruñea: Katakarak Liburuak.

Pérez, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Madril: Traficantes de Sueños.

Pérez, Amaia (2018): “Economía feminista: viva, abierta y subversiva”. *Dossieres EsF: Economía feminista: visibilizar lo invisible*, 29.

Picchio, Antonella (2001): “Un enfoque macroeconómico “ampliado” de las condiciones de vida”. Cristina Carrasco (ed.): *Tiempos, trabajos y género*. Barcelona: Publicacions Universitat de Barcelona, 15-37.orr.

Rodríguez, Arantxa eta Ugidos, Arantza (2017): “Tiempos, trabajos y desigualdad de género en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado español”. *Revista vasca de economía*, 91. Gasteiz.

Sagastizabal, Marina eta Luxán, Marta (2015): “Generoa eta denboraren erabilera”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora-Aurrekontuen Inkesta 1993-2013; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)*

Stiglitz, Joseph; Sen, Amartya eta Fitoussi, Jean-Paul (2009): *Una iniciativa para mejorar la métrica del crecimiento económico y el progreso social*; eskuragarri hemen: [http://www.eustat.eus/documentos/datos/CV10\\_03\\_1.pdf](http://www.eustat.eus/documentos/datos/CV10_03_1.pdf) [kontsulta eguna: 2018/11/11].

Zubero, Imanol (2015):“Euskal gizartea, denboraren erabileraren ikuspegitik”. *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora- Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*; eskuragarri hemen: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_bi-hamarkadako-gizarte-aldaketa-euskal-aen-denboraren-erabileraren-bitartez-1993-2013-denbora-aurrekontuen-inkesta-monografikoa-pdf-320kb/inf0013239_e.pdf)

## BESTE ZENBAIT DOKUMENTU

Enplegu eta Gizarte Politikako Saila (2018): “Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako: Familietan inbertitzea, haurtzaroen inbertitzea”. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Garapenerako Nazio Batuen Programak (2015): *Giza garapenari buruzko txostena*, 2015. Mexiko: GNPB.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen eta Gallupen txostena (2017): *Hacia un futuro mejor para las mujeres en el trabajo: La opinión de las mujeres y de los hombres*; eskuragarri hemen: [https://www.ilo.org/global/publications/books/WCMS\\_607487/lang--es/index.htm](https://www.ilo.org/global/publications/books/WCMS_607487/lang--es/index.htm) [kontsulta eguna: 2019/01/02].

Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostena (2018): *Zaintza lanak eta zaintza lanetan diharduten langileak, etorkizunean lan duina izateko*, laburpen exekutiboa [on-line]; eskuragarri hemen: [https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms\\_633168.pdf](https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_633168.pdf) [kontsulta eguna: 2018/12/15].

## WEBGRAFIA

BOE <https://www.boe.es/boe/dias/2017/10/07/pdfs/BOE-A-2017-11528.pdf7>

Eitb (2018): “Seme-alabaren bat duten kideek umeak zaintzeko lau hileko baimena izango dute 2019an” [on-line]; eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/oso/5600584/aitatasun-baimen-berria-2019-jaurlaritzak-12-asteko-eszedentzia-ordainduko-du/> [kontsulta eguna: 2019/01/22].

El Diario (2019): “Funcionarios vascos: permisos parentales iguales para la pareja de 16 semanas para cada uno y 100 % remunerados” [on-line]; eskuragarri hemen: [https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Funcionarios-permisos-parentales-semanas-remunerados\\_0\\_862314712.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Funcionarios-permisos-parentales-semanas-remunerados_0_862314712.html) [kontsulta eguna: 2019/02/01].

La vanguardia (2018): “El trabajo de cuidados no remunerado en España equivale al 15% del PIB, según la OIT” [on-line]; eskuragarri hemen: <https://www.lavanguardia.com/vida/20181008/452236201261/economia--el-trabajo-de-cuidados-no-remunerado-en-espana-equivale-al-15-del-pib-segun-la-oit.html> [kontsulta eguna: 2019/01/23].